

ttipi-ttapa

Adur ETXEZARRETA REZOLA | Aresoko eskiatzailea

«MUNDUKO ONENENGANDIK IKASTEKO AUKERA IZAN DUT»

Suedian egin den munduko eski txapelketan parte hartu du eta horrez gain, Espainiako txapeldun izan da.

2022an Txinan eginen diren

Olinpiar Jokoei begira dago orain. / 8



RFEDI

Udal hauteskundeetarako prest

Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oiz eta Urrozko udaletara eta Legasa eta Narbarteko kontzejuetara ez da inor aurkeztu.

SINADURAK

 MAIDER IANTZI GOIENETXE / 3

 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3

 MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN / 4

 ttipi txartela

Josune Sorando Odozola
72873152-A
2021/04
372


ZOZKETA / 52



Urtebeteko ibilbidea egin du Argitsu eskualdeko artisauen elkarteak / 10-11



Ekitaldiz betetako Kultur Aroa maiatzaren 8tik aurrera Leitzan / 30



Etxalarko Mendi Itzulia eta Goizuetako mendi lasterketa maiatzean / 15-32



Energia Berriztagarrien
Goi Mailako Zentro
Integratua EBGZI

Sarbide zuzena DBHrekin

**Ate irekien
jardunaldia**

Maiatzak 6 - 17:30
Ezagutu gaitzazu



ESKAINTZA BERRIA ERDI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOA

> Uren tratamenduak sare eta araztegiak

BAILARATIK ATERA GABE
Ez galdu aukera zure ikasketekin jarraitzeko

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

- > Energia berriztagarriak
- > Energia-eraginkortasuna eta eguzki-energia termikoa
- > Instalazio termikoak eta fluidodunen mantentzea
- > Zentral elektrikoak (klaseak online)

Informazio gehiago www.cenifer.com

Aduana kalea z/g - Imarkoain - T. 848 43 13 80

LH

ERDI MAILAKO ETA
GOI MAILAKO ZIKLOAK

IRUDIA ETA SOINUA

Araututako formakuntza Iruñean
Lan-poltsa

CTL

formación
imagen • sonido
Tel. 948291756



Matrikulatzeko epea zabalik

Informa zaitez: info@ctl-online.com



NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Beitu, zenbatu, gehitu

Beitu, zenbatu, gehitu -dio Berri Txarrak-ek-, *ondokoak baino mugikor txikiago* (gaur handiago) *bat*. Ttitikatik izan ginen konparaketa-objektu: ahizpa gazteena politagoa da zaharrena baino, mutikoa 'erraza' da eta neska 'zaila'... Eta guk ere ikasi genuen alderatzen. *Ondokoak baino titi handiagoak*. Batzuek betegarria jartzen dute; bertzeek, disimulatzeko arropa.

Nork ezartzen du neurria?

Beitu, zenbatu, gehitu, ondokoak baino kotxe azkarrago bat. Egunak zenbatzen ditugu larunbaterako, orduak lanetik ateratzeko, eta 'ze azkar pasatzen den denbora!' harritzen eta

kexatzen gara gero. *Ondokoak baino modelo berriago bat*. Berria laster zahartzen da, ordea. Lehia bultzatzen da, baina konplizitate da laguntzen duena. Mendi buelta eder baten ondotik idazten dizuet. Txunditu nau paisaiak eta bere berdetasunarekin sekretu bat kontatu dit: ongi egoteko.

«LEHIA BULTZATZEN DA BAINA LAGUNTZEN DUENA KONPLIZITATEA DA»



EZPALA

AITOR AROTZEN A LBIZU

Beldurra sumatzen dute Sumakoek

Beldurra sumatzen omen dute Sumakoek Bera "bezalako" herrietara datozenean, eta askatasunik ez dagoela. Altzate karrikan Mendi Maratoi Erdiko kirolariak txalotzen ari ginela ikusi genituen gozotegi batetik ateratzen, beraien pastelxoak paperean bilduak. Ez zuten beldur aurpegi handirik eta *suelto* xamar zebiltzan. Jendeak, hori bai, *artikulo 33, p... kasorik ez!*

NABARMENTZEKOAK



ENGRAXI
MARZOL
100 URTEKOA



NICOLAS
ETXEBERRIA
SARITUA

Sortzez Aresoko Otsaida etxean jaiotakoa den Engraxi Marzolek ehun urte bete zituen apirilaren 16an. Bost senidetatik hirugarrena da eta azken 27 urteotan Tolosan bizi da.

Apirilaren 18tik 21era Baionan egin zen xingarraren ferian Nicolas Etxeberria saratarrak lehenbiziko saria eskuratu zuen 17,5 kiloko urdiaizpikoarekin.

ATZERA BEGIRA



2009-04-30 · TTIPI-TTAPA · 493 zk.

Michelin gidan agertzeari muzin

Duela hamar urte, Cédric Béchade Senpereko sukaldaria ospetsu bilakatu zen Michelin gidak eman nahi izan zion izarra onartu ez zuelako. Horren karietara, elkarrizketa egin zion TTIPI-TTAPAK, eta erabaki horren zergatiak galdetuta honela erantzun zuen: «hamabi urtez jatetxe izardunetan aritua naiz lanean eta badakit zer den. Ez dut holako menpekotasunik eta urduritasunik nahi nire etxean. Michelin gidak nire ostatua eta hotelaren aipamena egin zuen iaz eta berehala gidako zuzendariari erran nion ez nuela nahi ostatua gidan agertzea nire enpresaren kontrola atxiki nahi baitut. Izarrak urduritasuna sortzen du, nehork ez baitu galdu nahi ondoko urteetan».



Argitaratzailea
Ttiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemalleak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien,
Maider Petireña, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Iñaxo Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarte
2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 38€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Ipar Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€



KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Herriaren alde

Espainiakoak pasata, ohartu orduko heldu zaizkigu berriz ere hauteskundeak Hego Euskal Herrira. Eta, bertze hainbat lekutan bezala, gure eskualdean ere abiatuak dira zerrendak, programak eta bataren zein bertzearen aldeko kanpainak sare sozial, ostatu eta karriketan.

Argazki interesgarria dakarkigu eskualdeak. Lehen begiratuan, anitz erraten duena. Herri tiki batzuetan alkatetza nork lortuko duen erabakia dago jada: zerrenda bakarra aurkeztu baitute, eta, anitzetan, gaur egungoaren ildokoa.

Bertizaranan, Arantzan, Sunbillan eta Goizuetan, erraterako, EH Bilduk eskuratuko du alkatetza, ez baita bertzerik aurkeztu. Bertze herri batzuetan, berriz, zerrenda independenteak egonen dira berriz ere herriko etxeetan.

Jokoa ez da aitzinetik idatziko herri handixeagoetan. Nahiz eta, kasu batzuetan, pronostikoak egitea hain zaila ez izan. Interesgarria da, dena den, hautagaien arteko talka. Zerrenda abertzaleen parean, adibidez, Navarra Suma espainiar eskuindarra aurkeztuko da hainbat herritan: Etxalarren eta

Beran, bertze bi hautagaitzen parean. Leitzan eta Donezteben, berriz, EH Bildurekin parez pare. Lesakan ere aurkeztu behar zuela iragarri zuen Andoni Elizondo PPko kideak; anitzen harridurarako: ordura arte

«ARGAZKIETATIK ASMA DAITEKE ZEIN DEN PROPOSAMENA»

inork ez baikenuen ezagutzen. Azkenean gibelera egin du, ordea, eta duela 20 urteko alkategai bera duen Geroa Bai taldea soilik izanen du buruz buru EH Bilduk. Baztanen, azkenik, anitzagoa da panorama.

Argazkietatik beretik asma daiteke zein den bakoitzaren proposamena. Alde batetik, zerrenda anitzak: zaharrak eta gazteak eta gizon-emakumeak biltzen dituztenak –nahiz alde batean zein bertzean emakume guti egon lehen lerroetan, arlo ugarian herri mugimenduetan dabilzan herritarrak... Eta, bertzetik, nagusiki zaharrak, urte osoan guti ikusten ditugunak.

Programetan ere irakur daiteke nork egiten dituen promesak eta nork proposamen interesgarriak. Nork egiten dituen bilera parte-hartzaileak, eta nork botatzen duen asfaltoa lau urtetan ahantzirik utzitako auzo batean, bat-batean, apirilean. Botoa hautu librea da, eta norberak erabakiko du zein paper sartzen duen gutun-azalean. Aitzinetik ez dago soberan pentsatzea, dena den, nork defendatuko dituen bere interesak, eta nork egingen duen, zinez, herriaren alde.

ZUHAITZ BELOKI LEIZA

Euskara mundu digitalean

Dagoeneko ohituta gaude euskararen inguruko albiste txarrak entzuten. Administrazioetan ez zaiola behar duen adina pisu ematen, kaleko erabilera jaisten ari ote den... Euskarak etorkizunean bizirauteko duen arriskua ikusita, ulertzekoa da euskaldunon ikuspegi ezkorra. Baina etsia hartzen badugu, nola borrokatu lortzea ezinezko ikusten dugu horren alde?

Mezu positiboago bat zabaltzeko asmoz nator gaur. Euskarak mundu digitalean duen egoeraz ari naiz. Ez hainbeste edukiari dagokionez, sare sozialetako erabilera, adibidez, kaleko erabilerarekin zuzenean lotuta baitago. Euskararekin lan egiteko dauzkagun tresna eta teknologiaz ari naiz.

Hizkuntza baten osasun digitala neurtzeko termometro adierazgarri bat Wikipedia da. Euskarak, Wikipediaren arabera, 635 mila hitzun inguru dauzka. Artikulu kopuruari erreparatuz gero, euskara 31. postuan dago. Europako hizkuntzen artean 21. postuan gaude, 15 eta 12 milioi hitzun

dituzten greziera eta bulgariaren aurretik, adibidez. Horrek garbi uzten du, komunitate txikia izan arren, badaukagula edukia euskaraz sortzeko gaitasunik. Izan ere, milioi bat hitzune

«EUSKAL HIZTUN KOPURUA IKUSITA LORTZEN ARI GARENA EZ DA MAKALA»

zenbat artikulu-sortzaile dauden kontuan hartzen badugu, munduko hizkuntza guztien artean lehenbiziko postuan ageri zaigu euskara. Bada zerbait.

Wikipediatik haratago ere, kalitatezko tresna ugari dauzkagu eskuragarri. Itzultzaile automatikoak, hiztegi digitalak, zuzentzaileak, ahotsa testu bihurtzeko tresnak... Ez gaude ingelesaren parean, noski, baina bai euskarak baino askoz ere hitzun gehiago dituzten beste hainbat hizkuntza baino egoera osasuntsuagoan. Horren adibide da Modela itzultzaile automatikoa. Adimen artifizialean punta-puntakoak diren sare neuronaletan oinarritutako teknikak erabiliz garatutako tresna hau emaitza bikainak ematen ari da euskara eta gaztelaniaren artean itzultzen.

Teknologia digitala hartzen ari den garrantzia ikusita, ia ziur esan dezakegu mundu horretara egokitzen ez den hizkuntzak etorkizun iluna daukala. Bada, euskararen hitzun kopurua kontuan hartuta, ez da makala lortzen ari garena. Ez dezagun geure burua gutxietsi, eta ikus dezagun etorkizuna itxaropenez.

11 GALDERA LABUR

IKER SEIN IGANTZIAR GAZTEA

«Lanaren erdia kopilotoarena da eta hori ez da baloratzen»

Aurkeztu zure burua.

Kotxeak, eskiatzea eta bidaia-tzea gustuko duen igantziar mutil saltsero bat naiz.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Lanetik ateratzen naizenean garajera joan eta nire saltsan ibiltzeko denbora falta izaten dut. Gustuko tokian orduak motz izaten dira.

Nondik datorkizu kotxeekiko zaletasun hori?

Egia erran ez dakit nondik heldu zaidan. Ttikitatik bizikleta, motor eta kotxeen bueltan sortzen den saltsa hori gustatu izan zait. Inguruan motorzaleak ere badituz eta horrek ere eragina izan du...

Noiz hasi zinen rallytan?

Duela lau urte Lesakako igoera izan zen egin nuen lehen-

dabizikoa. Aste horretan eresia nuen kotxea eta motorrak ez zuen ezta 200 metro ere irau (irrika). Ordutik dezentetan parte hartu dut.

Zein izan da egin duzun igoera politena?

Joan den urteko Malerrekako Rallysprinta. Euritan laster egitea gustatzen zait eta halaxe izan zen. Horri esker hirugarren postua lortu genuen. **Izpegiko II. Rallysprinterako zein erronka jarri diozu zeure buruari?**

Joan den urtean ez nuen joaterikizan, kotxea ez bainuen prest. Aurten baietz espero dut eta lehendabiziko hamarretan gelditzea gustatuko litzaidake.

Udara begira, baduzu bertze lasterketik buruan?



Pila bat, baina batez ere Lesakako Rallysprinta eta Pays Basque Rallya ilusioz hartuko ditut.

Zein da kotxea kontrolatzeko sekretua?

Kolpeka ikasten da, hautsitz (irriz). Bertzalde, kopilotoak egiten duen lanak ere badu zerikusia, jendeak uste duena baino gehiago... Lanaren erdia berea dela erranen nuke.

Rallyrik ez dagoen asteburuan zein da plan hobereana?

Eskiatzera joatea, elurra dagoenean aukera ederra izan daiteke.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Planak behar bezala ateratzeak eta lasterketen aitzineko egunean kotxea ongi ibiltzeak, Lesakan, Jaizkibelen eta Bidasoan hondatu egin zitzaidan eta... (irriz).

Amets bat?

Igoeraren batean porche batekin ateratzea gustatuko litzaidake.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Osatu zure landa etxea!

2019-05-02 | 733 zk. | ttipi-ttapa 5



IRAKURLEAK MINTZO

Batzuk etxetik, bertzeek kanpotik

ARANTXA GAMIO

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuan substantzien kontsumoaren prebentziorako zenbait egitasmo egiten ari gara: gurasoekin, nerabeekin, gazteekin aisialdian,... batzuk esku-hartze zuzenak dira, bertze batzuk taldekoak eta badira jendarteari bideratutako sentsibilizazio kanpainak ere.

Hurrengo asteburu eta hilabeteetan opor eta parranda garaia izanen dugu eta batez ere gure etxeko eta inguruko ikasleek denbora libre gehiago izanen dute, ikasturtearen azken txanpan baitaude: aisialdiko eskaintza zabalagoa (herrietako bestak, bidaiak, igerilekua, ...), deus egin behar gabeko ordu hilak... Hortaz, bai familiak bai ingurukoek (saltzaileek, instituzioek, komunikabideek, ...) ere dugun egin-beharraz oroitarazi nahi dugu.

Familiei eta bereziki gurasoei, etxetik egin eta jasotzen den heziketaren garrantzia nabarmendu nahi diegu; egunerokotasun irensgarri honetan maiz gure ama edo aita eginbeharretara nekatuak, akituak iristen baikara! Eta gure seme-alabei guk erakusten ez dieguna inork ez dienez erakutsiko, gure gain dago egin beharrekoaren ardura hartu eta ekitea! Oraingoan, alkohol, tabako edo bertzelako legez kanpoko sustantzien kontsumoa (kalamua...) etxetik ekidin, atzeratu eta landu beharraz ari gara:

-Ttiki-ttikitatik (nerabezaro garaian hastea beranduxko da) konfiantza eta komunikazio ohiturak sortzearen garrantzia.

- Gurasoak izatea seme-alaben gidari (erabakiak hartzen dituztenak, mugak jarri, sariak ematea erabaki...).

-Adin ttikikoei alkohol eta bertzelako substantziek eragiten dizkieten kalteez ohartaraztea: garunean, ikasketetan, familia gatazkak, afizioetatik urruntzea, ongizate emozionalean... Eta kontsumoaren kontrako jarrera eta mezu argiak adieraztea.

-Lehenik adin ttikikoetan ez kontsumitzea sustatu behar dugu (kontsumoak eragiten dituen kalte zuzenengatik, legez arautua dagoelako,...), gerora kontsumo adina ahalik eta gehien atzeratzea lortu behar da (norbere erabakiak hartu araziz, garapen psikologiko eta fisiko sakonagoak bermatuz,...) eta behin kontsumoa dagoelarik, jokabide arduratsuak sustatu (nahasketarik ez egitea, hidratazioa, atsedean hartzea, norbere mugak jartzea...) eta arriskuak guttiagotzeko mezuak helarazi (ikasketa garaian kontsumitzeak dakarren eraginaz, parrandan lagunak bakarrik ez utzi eta bakarrik ez geratzearen garrantzia emanez, etxerako itzulera seguruak eginaraziz...) kontsumoa desagertze aldera.

Inguruak ere badu heziketaren ardura, komunitatean bizi gara: instituzioek, saltzaileek, komunikabideek, barrideek, kirol taldeek... eredu eman behar dugu (ikusitakotik ikasten baita): informazioa zabalduz eta bermatuz, norberaren erabaki hartzeak sustatuz, taldeak eragiten duen presioaren gestioan lagunduz, laguntza bilatzera gonbidatuz, ezetza erranez, eta abar.

BOTA BERTSOA



IRATXE
MUXIKA KARRION
LESAKAKO BERTSOLARIA

Haria eten ez dadin

Doinua: Euskal Herriko lur maite hartan

*Mahai inguruan ageri dira
Plastikozko bi bankete
Eta arrainak, laranja poltsen
Lepokoa du jartzeke
Mendiko bokata aztarnak hor
Pasako du urtebete
Begiak pixkat irekiz gero
Ta burua zentzuz bete
Amona ere bere garaira
Itzuliko litzateke!*

*Beraz kontzientzia hartzen hasi
Ta irakurle, zu berdin
Gaurtik aurrera zure bizitza
Iraungarriago egin
Eguneroko ekintzarekin
Aldaketa bat eragin
Politikoen amalurrari
Begira dezaten agin
Gure etorkizunerantz doan
Haria eten ez dadin.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



ATE IREKIAK

Erdi Maila: **maiatzak, 6**
Goi Maila: **maiatzak, 7**
Ordua: 18:00

INSKRIPZIO EPEA:
Ekainaren 3tik 14 arte
biak barne

MATRIKULA EPEA:
Uztailaren 11tik 17 arte
biak barne



IDASOA

Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 666 010
info@fpbidasoa.eus



www.fpbidasoa.eus

 @fpbidasoa

 CIFP Bidasoa LHII

2019 / 2020 IKASTURTEA

ZIKLO-ESKAITZA
EGUNEZ ETA GAUEZ*

Hizkuntza Eskaintza A, B, D eta eleanitza

Gaztelania-Euskera-Ingelesa-Frantsesa

GOI MAILA

***FABRIKAZIO MEKANIKOKO**
PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK
ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA
INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

***INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK**

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK



Adur Etxezarretak munduko herrialde asko ezagutu ditu eskiari esker. UTZITAKO ARGAZKIA

«Munduko onenen artean egoteko lanean jarraituko dut»

ADUR ETXEZARRETA REZOLA ARESOKO ESKIATZAILEA

Aurten munduko eski txapelketan (Aren, Suedian) parte hartu du Adur Etxezarretak. Ametsa egia bihurtuta, 2022an Txinan izanen diren Olinpiar Jokoei begira dago

N. BAZTERRIKA ARESO

Eskiak soinean, makilak sustengu, bidean arrastoa uztea lortu du Adur Etxezarretak (Areso, 1996). Gaztea da, munduko txapelketan izan den gazteenarikoa. Halere, argi du bere bidea: «eski munduan jarraituko dut, ikasketak baztertu gabe».

Noiz jantzi zenituen eskiak lehen-dabizikoz?

Bost urte nituela, gurasoekin Formigalera joan nintzenez. Ez nuen esperientzia ona izan, tibia puskatu nuen egun hartan...

Ondoren Nafarroako eski taldean hasi zinen...

Bai, lasterketetan hasi nintzenez, 9-10 urterekin, eman

nuen izena. Eski taldean hasi aurretik Luz Ardidenen eskia-tzen nuen gurasoekin. Han frantziar gaztetxoek lasterketak egiten zituztela ikusi nuen eta horrek inbidia eragin zidan. Gurasoek Nafarroako Federaziora deitu zuten non entrenatzen zuten jakiteko. Proba bat egin ondoren, eski taldean hasi nintzen.

Eski taldean noiz sartu zinen?

11 urterekin eta junior mailara iritsi arte eski taldean egon nintzen. Junior mailara iritsitakoan, goi mailan egoteko errendimendu altuko zentro batera jo behar izaten denez, Sierra Nevadako zentroan sartzeko probak egin nituen. Zorionez, aukeratua izan nin-

tzen eta sei urtez han egon nintzen, iaz arte. Bien bitartean, ia bi urtez geldirik egon behar izan nuen belaunean egin behar izan zizkidaten bi

ebakuntzengatik. Bi urte txar horien ondoren lortutako emaitzak nahiko onak izan ziren. Hortaz, iaz Espainiako Neguko Kirol Federazioko jarraipen bereziko taldean aukera bat ematea erabaki zuten. Iaz lortutako emaitzei esker, Federazioan sartzea lortu dut eta aurtengo denboraldia haiekin egin dut.

Hasiera hartako nolako oroitzapenak dituzu?

Izugarriak, nire bizitzako eta-parik onena izan zela esan dezaket. Oraindik lagun on ditudanak ezagutu nituen... Gogoan dut lehen-dabiziko lasterketa, Astunen izan zen eta ez nuen ongi egin... Hura izan zen ordutik egin ditudan hamaika lasterketen abiapuntua.

Noiz hasi ohi dituzu entrenamenduak?

Urtero programa aldatzen bada ere, denboraldi-aurrea ekain bukaeran edo uztail hasieran hasi ohi dugu. Normalean Frantzia eta Suitzako glaziarretan edo Hego Ameriketan egiten ditugu entrenamenduak. Lehenengo lasterketara 50-60 eski egunekin joaten saiatzen gara. Lasterketa denboraldia, berriz, azaroan hasten dugu eta apirilean bukatu. Hor lasterketak eta entrenamenduak tartekatuta behar izaten ditugu, tokiaren arabera. Prestakuntza fisikoari dagokionez, berriz, bakoitzak bere etxean egiten du, prestatzaileak bidalitakoaren arabera. Dena dela, fisiko kontzentrazioak ere egiten

Laburrean

Zein da eskien berezitasuna?

120 km/h abiaduran 50 metroko jauzi bat egitearen sentsazioa.

Horren ongi ibiltzeko sekretua?

Orduak eta orduak sartzea.

Zure gaitasuna?

Abiadura probetan dut erraztasun handiena.

Gabeziak?

Akats teknikoak.

Eskiatzaile eredugarri bat?

Aksel Lund Svindal.

Eskiatzeko toki bat?

Wengen (Suitza).

Amets bat?

Noizbait Kitzbuheleko (Austria) jaitsiera librea irabaztea.

ditugu, bereziki Sierra Nevada dako errendimendu altuko zentroan.

Zertan aldatu zaizkizu entrenamenduak Espainiako Neguko Kirol Federazioan hasi zarenetik?

Sierra Nevada teknifikazio zentroan programa nahiko ona nuen baina ez nuen abiadura probetan bakarrik oinarritutako prestaketarik; orain, aldiz, bai. Entrenamenduak ere egunei eta lasterketa-egutegiari dagokionez, osoagoak dira eta baliabide asko (materiala, entrenatzaileak...) ditut eskura.

Zein modalitatetan moldatzen zara hobe?

Junior mailan hasieran modalitate guztiak egiten nituen, baina abiadura probetan espezializatu naiz. Erraldoian eta slalom probetan ongi moldatuagatik, abiadura probetan beti hobe ibili naiz. Eskiatzaille moduan eta fisikoki ditudan ezaugarriak egokiagoak direlako edo...

Otsailean munduko eski txapelketan izan zara Aren (Suedia)...

Esperientzia aberasgarria izan dela esan dezaket, idolo izan ditudan ondoan gotea zirrargarria izan da, egia bihurtutako ametsa. Haiengandik ikasteko aukera izan dut.

Lortutako emaitzekin pozik al zaude?

Munduko txapelketako debuta ez da erraza... Super erraldoian linearekin akats bat egin nuen eta ez nuen amaitzea lortu. Jaitsiera proban, berriz, 40. izan nintzen. Momentuan ez nintzen gustura geratu, batez ere jaitsiera libreko proba hobe egin nezakeelako sentazioa nuen, lehen bi partzietan akats txiki batzuk egin nituen eta... Hala eta guztiz ere, orain, niretzat lehendabiziko munduko txapelketa zela eta gazteenetakoa nintzela kontuan hartuz, nire burua nahiko ongi ikusi dudala esan dezaket.

Denboraldi bukaerara arte bate-tik bestera ibili zara...

Bai. Ondoren, Italian izan nintzen Sarentinoko Europako



Munduko txapelketan jaitsiera libreko proban 40. izan zen. UTZITAKO ARGAZKIA



Abiadura probetan oinarritutako prestaketak jaso ditu. UTZITAKO ARGAZKIA

Kopan, Champoluc-Antagnoden eta Sella Neveako FIS lasterketetan. Otsail bukaeratik martxo hasierara bitarte Errusian egon nintzen eta handik zuzenean Frantziara jo nuen Les Orreseko lasterketak egiteko. Ondorengo Frantziako lasterketak Auronen eta Espainiako Baquiera Bereten egin nuen eta denboraldia Tigneseko (Frantzia) lasterketekin bukatu nuen apirilaren 5ean.

«SARIEK AUERRERA EGITEKO INDAR HANDIA EMAN DIDATE»

Hurrengo denboraldirako prestaketak non egingen dituzu?

Ziurrenik Suitzan eta Hego Ameriketean.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ikasten ari zara... Nola uztartzen duzu?

Urte hasieratik apirilean denboraldia bukatu arte ia ezin izaten dut unibertsitatera joan... Apiriletik ekainera bitarte ahal dudana guztia gainditzen saiatzen naiz. Ez da erraza. Erritmo motelagoa

«MUNDUKO ONENENGANDIK IKASTEKO AUKERA IZAN DUT»

daramat, baina argi dut ikasketekin jarraitu behar dudala. **Orain arte eskien gainean egin dako ibilbidea, nola baloratuko zenuke?**

Gora-beheratsua izan da. Junior mailan hasi nintzenean maila eta garapena erakutsi nuen, baina ondotik bi denboraldi galdu nituen. Bi urte horiek oso zailak izan ziren. Urte garrantzitsuenetan, lehiakideak aurrera egiten ari ziren heinean, neure burua kanpoan ikustea ez zen erraza izan... Psikologikoki oso gaizki pasa nuen...

Bidean sari andana irabazi duzu...

Ez dakit zenbat izanen diren, baina horietako bakoitza garrantzitsua da. Kirol honek sakrifizio handia eskatzen du: etxetik kanpo denbora asko pasatzea, ordu askoz entrenatzea... Sariak eskuratzean hori guztia ahaztu eta ahaleginek merezi izan dutela ikusten dugu eta hori garrantzitsua da.

Zein dira, etorkizunera begira, zeure buruari jarri dizkizun erronkak?

Azken urteotan bezala, aurrera egin eta munduko onenen artean egon nahi nuke. 2022an Txinan izanen diren Neguko Olinpiar Jokoetan parte hartzea ere gustatuko litzaidake.



Argitsu elkarteko kideek hainbat azoka antolatu zituzten iaz eta aurten bide beretik segitzeko asmoa dute. UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan-Bidasoaldeko artisauak elkarlanean

Urtebete baino gehiagoko ibilbidea egin du Baztan, Bortziriak eta Malerrekako artisauak biltzen dituen Argitsu elkarteak. Tarte horretan hainbat azoka antolatu dituzte eta orain artekoaren balorazio baikorra egin dute. Aurten ere bide beretik segitu nahi dute

G. PIKABEA

Eskuak dituzte lanabes eta zilarra, harriak, oihalak, hariak, artilea, belarrak, egurra eta bertze hainbat material lehengai. Horixe dute afizio edota ofizio eskualdeko hainbat artisau biltzen dituen Argitsu Elkarteko kideek. Badute bertze bereizgarri bat: taldean ibiltzen dira. Ez dira azoketako gonbidatu hutsak, eurek baitira han eta hemen azokak antolatzen dituztenak.

Dagoeneko urtebete baino gehiago daramate elkarlanean. Joan den urteko otsail aldera hasi ziren elkarte sortzeko lehenbiziko urratsak ematen, «hutsune batzuk betetzeko asmoz». Hala kontatu digu Nagore Intxausti Argitsu elkarteko kideak. «Baztandar batzuongandik» hasi omen zuten guztia: «horietako batzuk

Baztango Artisauen Elkarteko kideak ginen, baina elkarteko kideon artean ideiek talka egiten zuten. Baztanen bizi eta baztandarsentitu arren, batzuk ez genuen Baztanera mugatu nahi. Eskualdea Zugarramurdi-Urdazubitik eta Bera eta Ezkurrara bitarte ulertzen genuen eta hori izan zen elkarte sortzeko abiapuntuetakoa. «Euren gisara zebiltzan artisauak biltzeko gogoaren emaitza izan zen Argitsu, eta gaur egun, Baztan, Bortziriak eta Malerrekako 13 artisauk osatzen dute. Bitxigintza egiten dute batzuek, eta ukenduak eta xaboiak bertzeek. Badira egurra eta artilea lantzen eta oihalekin haurrentzako produktuak egiten dituztenak, baita buruhandiak eta maskarak egiten eta koadernatzen aritzen direnak ere.

Harrera ona

«Gogotsu eta ilusioz» eman zituzten elkarte sortzeko lehenbiziko urratsak: «eta holako osagaiekin edozein gauza erraza izaten da», azaldu digu Intxaustik. Nafarroako artisau elkarte gisa erregistratu ziren lehenbizi eta arau

«AZOKEZ GAIN, TAILERRAK ETA ZOZKETAK EGITEN DITUGU»

«ESKUALDEKO ARTISAUEK ELKARTEKO ATEAK ZABALIK DITUZTE»

ARGITSU ELKARTEA

batzuk zehaztu zituzten gero. Urtebete beranduago, ilusio berarekin segitzen dute: «gustura gaude, giro ona dugu gure artean eta salmentarekin ere kontent gaude». Are gehiago, espero ez bezalako erantzuna izan dute eta «horrek beharra bazela» erran nahi omen du. Denborarekin «ikasten eta garatzen» ari direla ere gaineratu du.

2018a «frogak egiteko urtea» izan zen. Erratzun, Urdazubin, Elizondon, Lesakan, Iturenen... antolatu zituzten azokak eta «orokorrean arras ongi» atera omen ziren. Hortaz, aurten ere bide beretik segitu nahi dute: «aurten iazko azoka dezente errepikatuko ditugu» eta aukera sortuz gero, «azoka gehiago muntatzen saiatuko gara». Baina nabarmentzekoa da ez direla azokak antolatzeramugatzen. «Gure produktuak erakustez gain, haratago joan nahi izaten dugu eta haurrentzako tailerrak ere antolatzen ditugu: hariekin eskumuturrekoak eta maskarak egiteko tailerrak, marrazketa librea edo zuzendua... Berriki, Aste Santuan, egin ditugun azoketan, iaz bezala, landatu eta ereiteko tailerrak ere egin ditugu». Tarteke bertze eskualdetako artisauak ere gonbidatzen dituzte eta «azokak girotzeko musika ere izaten dugu, batzuetan zuzenean». Horrez gain, «gure produktuekin zozketa bat ere egiten dugu».

Kontent daude orain artekoarekin eta ilusioz eta gogotsu begiratzen diote etorkizunari. Horrekin batera, argi utzi nahi izan dute elkarteko ateak eskualdeko edozein artisaurerentzat zabalik daudela. Nabarmendu dutenez, elkarteko kide egiteko «artisaua izatea eta eskualdekoa izatea» baino ez dute eskatzen. Haunditzen segitu nahi dutenez, hortxe luzatu dute gonbidapena, eta «bereziki Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdiko artisauak, oraindik ez dugulako herri horietako artisaurik elkarrean».

Argitsu elkarteko artisauekin solasean...



NAGORE INTXAUSTI
ERRATZUKO ARTISAUA

«Gutti dira artisautzatik bizi direnak»

Zilarrarekin eta harriekin bitxiak egiten ditu, baita ukenduak eta xaboiak ere. Duela 20 bat urte Mexikora egindako bidaian izan zuen zilarrarekin lehenbiziko hartu-emana eta handik «zilar pixka bat» ekarrita, «nire kabuz lantzen eta azoketara joaten hasi nintzen». 2007an, berriz, «krisiarekin nire produktuek beherakada» izan zuteanean, «gaztetatik hurbil» izan dituen sendabellarrekin lanean hasi zen, ukenduak eta xaboiak eginez. Eta gaur egun bitxi-gintzan eta sendabellarrekin dabil, «Aste Santu inguruan hasi eta urtaril hasiera arte, astebururo plazaz plaza Euskal Herri osoan barna».

Musikarien gisara

Artisautzatik bizi daitekeen galdetuta, musikariak ditu gogoan Intxaustik. «Batziek musikatik bizitzea lortzen dute eta bertzeek ez; artisautzan gauza bera gertatzen da. Bizi daiteke, baina lortzen dutenen portzentajea ez da altua». Bera, ordea, kontent dabil egiten duena eginez, «jendearekin sozializatzea, turismoa egitea eta ekonomia» eskaintzen diolako bere lanak. Argitsu elkarteak ere ba omen du zerikusia gustura sentitzearekin: «Argitsu erditze bat izan da niretzat eta nire beharrak aunitzez ere gehiago asetzen ditu. Gustuko dudana egitea beharrezkoa dela iruditzen zait eta horretarako aukera eskaintzen dit elkarteak».



NOELIA ARIZTIA
DONEZTEBEKO ARTISAUA

«Argitsuk ilusioa piztu die inguruko artisauei»

Duela bost urte, begiz jo zuen makramearen bidez bitxiak egiteko teknika, «Hego Amerikako kaleetan hainbat herraldetako artisauekin», eta geroztik, han ikasitakoa zaletasun handi bilakatu da beretzat. Kontatu digunez, «ordura arte, ez nuen inongo loturarik lanbide horrekin, eta ez nuen nire burua bitxiak egiteko gai ikusten», baina begira non bukatu duen orain.

Argi berria

Artisautzatik bizi daitekeela uste du doneztebarrak, baina «denbora eta dedikazio guztia» eskaini behar delakoan dago. Hala ere, gaineratu duenez, «tamalez, ez dugu laguntza haundirik lanbide honetara guztiz dedikatzeke». Bere «inguruko artisauek mundu horretan afizioz murgiltzen» direla dio, «gustuko ditugun eskulanak egiten ditugunez, kalera ateratzen gara bezeroei eskaintzeko». Bide horretan, «Argitsuk eskualdean argi bat» sortu duela kontatu digu, «ilusioa piztu die zonaldeko artisauei, berriz ere lanbide honi bere lekua eta ongi pasatzeko aukera eskaintzen diona». Ilusio horri tiraka, «Argitsu elkartearen proiektua eraginkorra izatea gustatuko» litzaiokeela aitortu digu, «ahalik eta artisauek gehienek gurekin ateratzeko aukera izan dezaten». Bide batez, eskerrak eman nahi dizkie «eskua zabalitzen diguten udaletxe guztiei».




NEKANE MUJIKA
BERAKO ARTISAUA

«Elkarri laguntzeko familia bat bezala da»

Probatu eta gustatu. Horixe gertatu zitzaion. Duela lau bat urte, «Irungo oihal-denda batean josteko klaseetara joaten hasi nintzen eta hurrengo urratsa josteko makina bat erostea izan zen». Jostuna izana duen izebak «josteko makina pixka bat erabiltzen erakutsi» zion eta horren ondotik, «pixkanaka-pixkanaka nire kabuz gauzak probatzen hasi nintzen». Hala, gaur egun, «oihalekin haurrentzako produktuak egiten ditut: panpinak, motxilak...». Ez du hori lanbidea, baina «hasieran denborapasa» baino ez zena, «denborarekin indar gehiago hartzen ari den zerbait» bilakatu da. «Gero eta jende gehiagok ezagutzen nau eta horrek segitzeko eta gauza berriak probatzeko indarra ematen dit».

Marka bereiztearen garrantzia

Artisautzatik bizi daitekeela dio, baina horretarako «zure marka bereiztea, markari balioa ematea eta merkatuan toki bat lortzea» garrantzitsutzat jo du. Gainerakoan, «herri tiki-tiki artisauek lana baloratzen» dutelakoan dago, «eskutuan duen produktua eskuz eta kalitateko materialarekin egina eta bakarra dela» aintzat hartzen dutela. «Hiri eta herri haundietan, ordea, ez». Argitsu elkartearen ere pozik dago, «jendea ezagutzeko eta ongi pasatzeko espazioa» delako beretzat, «elkarri laguntzeko dagoen familia bat bezala».



HAIZEA IRIGOIEN
LESACA/ELIZONDOKO ARTISAUA

«Artisautzan bide berri baten sorrera izan da»

Azalerako eta gorputzerako sendabellarrekin egindako produktu naturalak egiten ditu sortzez lesakarra baina Elizondoko bizi den Irigoienek. Horrez gain, negurako artilezko txanoak, bufandak... egiten ditu. Duela sei bat urte hasi zen artisautzan, nahiz eta ez dituen lan arrotzak. «Sendabellarren mundua nahiko hurbil izan dut betitik, amatxi eta amaren bitartez ezagutu nuen» eta «artilea lantzen lagun batekin eta amarekin ikasi dut». Denborarekin, ordea, gehiago ikasi du: «nire kabuz informazio gehiago bildu dut landareen balioen inguruan».

Pertsona bezala ere lagungarri

Ez da artisautzatik bizi, nahiz eta posible dela dioen: «esfortzu haundiarekin eta azoka aunitzetara mugituz». Bera «urtean azoka gutti batzuetara» joaten omen da, eta hori «giroa eta azoketan sortzen den saltsa aunitz gustatzen» zaiolako egiten omen du, baita «sendabellarretan erabat sinesten dudalako» eta «garrantzitsua» iruditzen zaiolako «jendea kontzientziatzea». Argitsu elkarteaz ere esker oneko hitzak ditu: «artisautzan bide berri baten sorrera izan da». Bere kasuan, «artisauek eta pertsona bezala, esperientzia berri baterako aukera» eskaini omen dio: «bizikidetzat, talde lana, autogestioa, komunikazioa eta bertze zenbait aspektu lantzeko».

Frankismoko zenbait plaka kendu ditu Udalak

Guztira 5 plaka kendu dira Bidasoa eta Kanttonberri karriketako etxebizitzetatik

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan, Euskal Herriko herrietan hainbat neurri hartzen ari dira 1936ko kolpe militarren biktimei errekozimendua emateko. Horietako neurri bat sinbologia frankista kentzearena da, espazio publikoaren demokratizazioaren helbururekin (laureadak, eroritakoei dedikatuko plakak, oroitzapenezko aipamenak, etab.).

Horren harira, Nafarroan foru lege bat sortu zuten 2013an, Kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktime izandako Nafarroako herritarrei errekozimendua eta ordain morala ematen ziena.

2016an egin zen sinbologiaren eroldaren arabera, Agerran eta Bidasoa eta Kanttonberri karriketan oraindik baziren



Kendu den plaketako bat.

horrelako plakak. Agerrakoak duela hilabete batzuk kendu zituzten bertako bizilagunek eta Bidasoa eta Kanttonberri karriketako etxebizitzetakoak azken asteetan kendu ditu Udalak.

Plaka horiek garaiko Etxebizitzaren Institutu Nazionalak (INV) paratu zituen eta Falangek erabiltzen zituen ikurrak agertzen dira: uztarria eta geziak).

Bidasoko Lehenbizikoa arrantzatu du Uharteko Aitor Aristregik apirilaren 17an

TTIPI-TTAPA

Denboraldia apirilaren 14an ireki bazen ere, apirilaren 17ko goizera arte esperatu behar izan zuten aurtengo denboraldiko lehen izokina ateratzeko. Egun horretan, 07:30 aldera, Uharteko Aitor Aristregi Olorizek arrantzatu zuen, 15 minutuko borrokarekin ondotik, kutxarilla erabiliz, Enderlatsako tunelen inguruan. Hiruzpalau urte darrazki Uhartetik Bidasora arrantzara etortzen, baina lehen aldia da izokin bat arrantzatzen duela. Izokinetara ez ezik, amurrainetara Aragoi

edo Irati ibaietara ere joaten omen da.

Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteko Lorenzo Jaurena presidenteak saria eman dio Aristregiri lehen alea harripatzeagatik. Izokina, berriz, Donostiako Errekondo jate-txeak erosi du, 1.800 euroren truke. Denboraldiko lehen izokina soilik sal daiteke.

Denboraldia apirilaren 14an hasi eta uztailaren 31n bukatuko da edo lehenago, 60. izokina arrantzatzen denean. Maiatzaren 27tik ekainaren 13ra debekatua izanen da arrantzatzea (biegunak barne).



Aitor Aristregi eta Lorenzo Jaurena, Lehenbizikoarekin. UTZITAKO ARGAZKIA

2019-2020 ikasturtea

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK D EREDUAN (EUSKARAZ)

TOKI ONA BHI BERA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

AURREINSKRIPZIOA MAIATZAREN 6tik 10era

Telefonoa: 848 431 710

Web orria: <http://iestokiona.educacion.navarra.es>

iesbera@educacion.navarra.es

'Berako Oihua'n lanak aurkezteko epea zabalik da

Ekainaren 14ra arte aurkez daitezke herriko bestetako programan argitaratuko diren idazlanak

TTIPI-TTAPA

Urteroko moduan, herriko besten programarekin batera, *Berako Oihua* aldizkaria banatuko da etxeetan. Bertan artikulua idaztera animatu dute Kultur Batzordetik. Hauek aurkezteko epea ekainaren 14a bitarte izanen da.

Lanak nahi den gai eta luzerakoak izaten ahal dira, eta irudi edo argazkiz lagunduak joaten ahal dira. Lanak, posta elektronikoz kultura@bera.eus helbidera bidaltzen ahal dira edo, bertzenaz, zuzenean Berako Kultur etxera eraman.

Kultur Batzordeak aunitz eskertuko luke, ahal izanez gero, lanak formatu digitalean aurkeztuko balira.

Leku arazoengatik aurkeztutako testu guztiak sartzea ezinezkoa baldin bada, euskaraz idatzitakoek izanen dute lehentasuna. Testuak euskaraz idaztera animatzen du Udalak eta testuak itzuli ahal izanen ditu, euskaraz argitaratuak izateko. Testuarekin batera egilearen izen-abizenak eta nortasun agiria (azken hau ez da testuan agertuko) bidali beharko dira nahitaez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Biomasa-galdarara bisitan

Sarrigurenen, etxebizitza publiko batean lehen aldiz jarri duten biomasa-galdararen berri eman zuen Promobiomassek apiril hasieran eta, aldi berean, Larrainzarren eta Beran ere ibili zen batzorde teknikoak, herri hauetako esperientziak ezagutzeko. Berako kasuan, 2014an gasoliozko lau galdara kendu eta biomasako bi galdara paratu zituzten, 8.000 metro koadro hartzen dituzten bortz udal eraikini ur beroa eta berogailua ematen diotenak: hiru ikastetxeri, haurtzainegiari eta kiroldegia. Aldaketa honek, urteko 10.000 eta 30.000 euro arteko aurrezpena ekarri duela jakinarazi zuten, gasoilaren prezioaren arabera. Promobiomaske, Nasuvinsa buru duen nazioarteko proiektua da eta baso biomasa merkatua bultzatzea du helburu.

Gure Txokoaren urteko batzarra larunbatean

Gure Txokoa elkarteak ohiko batzarra egingen du. Maiatzaren 4an, larunbatean, bilduko dira, Iamotenean. Lehendabiziko deialdia 19:30ean izanen da eta bigarrena 20:00etan.

Iazko akta irakurri eta onartuko dute, bazkideek ontzat jotzen badute. Ondotik, bertze sail batzuetako arduradunekin batera 2018ko ekintzez solastatuko dira eta 2018ko kontuen balantzea aztertuko dute. Segidan, 2019rako aurreikusitako ekintzei helduko diete eta, azkenik, eskaeren eta galderen tartea izanen dute.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
**Aitor
ELEXPURU
EGAÑA**

2. Arantxa Zubieta Otxoteko. 3. Julen Errandonea Martin. 4. Estixu Pinatxo Olaziregi. 5. Estif Agirre Zubieta. 6. Josu Irtzoki Agirre. 7. Maialen Txantre Irtzoki. 8. Mikel Lertxundi Korta. 9. Adela Arlegi Goienetxe. 10. Lupe Mendigutxia Etxebeste. 11. Mari Jose Errandonea Alzuguren.



HERRIRAKO
**German
CASTILLO
LAZKANOTEGI**

2. Jose Antonio Oiarzabal Iribas. 3. Rakel Kiroga Tapia. 4. Nahuel Maximiliano Ibarburi Lonpre. 5. M^a Sagrario Irtzoki Etxarri. 6. Rufino Dozagarat Arburua. 7. Beatriz Franco Mujika. 8. Isaac Telletxea Bertiz. 9. Alberto Telletxea Bertiz. 10. Sonia Elgorriaga Martiarena. 11. M^a Aranzazu Alzugarai Barrios.



NAVARRA SUMA
**Juan
LOSA
OKARIZ**

2. Emiliano Martin Perez. 3. M^a Yolanda Ibañez Perez. 4. Carlos Fernando Gartzia Adanero. 5. Sandra Abad Sanz. 6. Pedro Ezkerro Barberia. 7. M^a Justina Malo Jimeno. 8. Francisco Jabier Atienza Martinez. 9. Carolina Moreno De Grazia. 10. Juan Jose Unzueta Gaztelu. 11. Sara Lebrero Cristobal.

LABE ZAR
Astelehenetik ortziratera: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

BRANDONEA, s.l.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

JAIONE-COKOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

'Ttirriki-Ttarraka' ikastolara oinez joateko egitasmoa

Maiatzaren 2tik aitzinera, goizetan Bittiria aldetik eta Antoiu aldetik abiatuko dira Tantirumairuko ikasleak

AITOR AROTZENA

Neska-mutikoengan ohitura osasuntsuak sustatzeko eta, bidenabarkoan, ikastetxeetarako sarrera-orduan sortzen diren auto-pilaketak eta trafikoko arazoak saihestu asmoz, Tantirumairu ikastolako guraso batzordeak *Ttirriki-Ttarraka* egitasmoa abiatuko du maiatzaren 2tik aitzinera. Helburua, goizero ikastolara ahalik eta ikasle gehien oinez hurbiltzea da. Horretarako bi zutabe osatuko dituzte: *Ttirriki*, 08:40an Eltzetako plazan abiatu eta Bittiria, Erdiko Errota eta Plaza Zaharrean barna ikastolara 08:55ean ailegatuko dena eta *Ttarraka*, Iturrun-zubiko plazako iturrian 08:45ean gelditu eta Antoiu karrikan eta Eskol-Ttikin barna ikastolara joanen dena. Bietan gurasoren bat izanen da arduradun, baina ikasle bat izanen da taldeko gidaria, txandaka.

Hemendik ikasturte bukarara proba egin eta heldu den ikasturte hasieratik egitasmoarekin segitzeko asmoa dute. *Ttirriki-Ttarraka* ezagutzera



Egitasmoaren logotipoa.

emateko eta ikasleak eta gurasoak parte hartzera animatzeko, logotipoa, kantua eta kamisetak ere prestatu dituzte.

Salva Yanciren omenez VI. Zikloturista martxa

Salvador Yanci zenaren omenez, maiatzaren 12an VI. Zikloturista Martxa antolatu du Beti Gaztek, inguruko elkarteek laguntzarekin. 112 kilometroko ibilbidea izanen da. Izen-ematea www.kirolprobak.com webgunean egin daiteke edo egunean berean plazan.



JON MARTINEZ

Beti Gazteko tikiak txapelkun Erriberrin

Ortzirale Santu egunez jokatu zen Erriberrin-Oliteko futbol txapelketa, benjamin mailako futbolari zuzendua. Beti Gazteko taldea suertatu zen txapelkun, finalean Erriberrin 1-4 irabazita. Gainera, Oihan Telletxea, Beti Gazteko jokalaria igantziarra izan zen txapelketako golegile nagusia, 9 golekin.

Hamar bizikleta zozketatuko ditu Zerbitzuen Elkarteak

Zerbitzuen Elkarteak maiatzean egiten diren 20 eurotik goitiko erosketak 10 bizikleten zozketan sartuko dira. Ekainaren 1ean egingen dute zotz.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
Ladis
SATRUSTEGI
ALTZUGARAI



GEROA BAI
Jose Luis
ETXEGARAI
ANDUEZA

2. Mattane Rodriguez Etxabide. 3. Iban Garro Altzuri. 4. Maider Arrieta Tapia. 5. Iratxe Batiz Barzena. 6. Mattin Etxabide Gartzia. 7. Gabriel Txoperena Altzugarai. 8. Ior Oteiza Goienetxe. 9. Beñat Saralegi Altzate. 10. Begoña Ordoki Fagoaga. 11. Jose Juan Zubieta Portu.

2. Ione Fagoaga Etxarte. 3. Iban De Prado Etxepeteleku. 4. Jose Esteban Etxebeste Apeztegia. 5. Esteban Iratzoki Iratzoki. 6. Jose M^a Portu Otxoteko. 7. Saioa Mitxelena Gortari. 8. Antonio Hidalgo Hidalgo. 9. Xier Muñoz Muñoz. 10. Carlos Ubiria Portu. 11. Victoriano Ruiz Alvarez.

BOXBONTA

JATETXEA

Egunero irekia



+ Eguneko menua
+ Menu berezia
+ Karta
+ Banketeak

Otsango, 1 - Lesaka - 948627519 / 948627503



LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826



TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatzako@gmail.com



Hemen erabili

kattagorria

LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE

OSTATU · JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Dena prest larunbateko IV. Mendi itzulirako

Eguraldi ederraren itxaropenarekin daude antolatzaileak maiatzaren 4koa egun borobila izan dadin

IRUNE ELIZAGOIEN

Maiatzaren 4ean goizeko 6:00etatik 8:00etara izanen da izen ematea frontoian. Nahi duenak aitzinetik www.mendizmendi.com web gunearen bitartez ere egin dezake (federatuek 10 eta federatu gabek 12). Irteera 7:00etatik 8:00etara bitartean izanen da.

Bi ibilbide egonen dira aukeran Etxalarko mendi eta parajeaz gozatzeko: A ibilbidea 34 kilometro eta 1650m ko desnibelarekin eta B ibilbidean 23 kilometro eta 1290m ko desnibelarekin. Ibilbidean zehar hainbat kontrol izanen dira janaria, edaria eta botikinarekin.



REBECA ARANZADI

Dantzariak Donostian eta Bartzelonan

Joseba Olagarai herriko kazetariak aurkeztutako ekitaldian, Donostiako Kontxako barandilan dantzatu zuten Etxalarko Añez eta Danielak apirilaren 14an. Rebea dantza akademia izan zen Nafarroako dantza eskola bakarra 1.500 dantzari inguru bildu zituen Donostiako jaialdian. Bertzetik, Oxel eta Daniela dantzariak, Rebea dantza akademia eta Pineda de Marreko Fanatik dantza eskolak antolatutako dantza kongresuan izan ziren Aste Santuko egunetan. Kongresu honetan 7 orduko klasea jaso zuten ikasleek hainbat dantza estilo landuz: popping Nuryrekin, break Valenekin eta hip hop-a Miriamekin. Honez gain dantza batailak ere egin zituzten.

Larraburuko Udaberriko Besta maiatzaren 19an

Maiatzaren 19rako udaberriko besta antolatu du Larraburua elkarteak. Igande horretan, 12:30ean muxikoak dantzatu dituzte herriko dantzariak plazan, Lesaka eta Igantziko dantzariekin batera. Ondotik bazkaria izanen da Larraburuan 14:00etan. Apuntatu nahi duenak 948635166 edo 664387343 telefonora deitu behar du maiatzaren 12a baino lehen. Arratsaldean *Neskatoak* dokumentala ikusgai izanen da Jon Abrilen eskutik eta jarraian Etxalarko argazki zaharren proiektzioa.

Jende aunitz ibili da Aste Santuan herrian bisitari

Landetxe guziak beteta, jende aunitz ibili da herrian Aste Santuan. Turismo bulegoa ere zabalik egon da eta ia 200 lagun pasa dira informazioa galdezka. Gehienek eliza eta Usategiak ikusi nahi izan dituzte. Herria erakusteko bi bisita gidatu ere egin dira.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
Patxi
IRISARRI
ELIZAGOIEN

2. Joseba Patxi Bizente Arburua. 3. Ainara Arangibel Reinaldos. 4. Xabier Iturria Arburua. 5. Miren Onintze Zinkunegi Artzelus. 6. Rufino Zubieta Sanzberro. 7. Rosa M^a Arrola Gil.



HERRI TALDEA
Miguel Mari
IRIGOIEN
SANZBERRO

2. Jose Mari Maia Ariztegi. 3. Ainara Arburua Olagarai. 4. Xabier Etxarte Mikelestora. 5. M^a Teresa Irisarri Babaze. 6. Garazi Remon Ibarra. 7. Garbiñe Maia Mikelestora.



NAVARRA SUMA
Jose Antonio
GENUA
IRIGOIEN

2. Encarnacion Ocaña Perez. 3. Natividad Lazkoz Artanga. 4. M^a Isabel Gartzia Malo. 5. Jose Luis Ramos Gonzalez. 6. M^a Elvira Aznar Karasusan. 7. Jose Luis Alvarez Delgado.

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA

T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

KAGU

LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232

Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)

31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Herri inguruko obrak bukatu dituzte eta itxura ederra dute

Sasoi enpresak bukatu berri ditu Sarrola aldean, Karrika Nagusian eta Elutseta auzoan egindako lanak

TTIPI-TTAPA

Sarrola aldean, fabrikaren ondotik goiko auzora doan bidea moldatuz hasi ziren aurten herrian egin beharreko lanak. Bertze hiru lekutan egiteko zeudenak akautu berriak ditu Sasoi enpresak. Karrika Nagusian, Goikoetxerriko errebueta eta ataria moldatu eta zolaberritu dituzte, eta gauza bera egin dute Irigoiena eta Itturburun tarteko atarian. Elutseta auzoan, berriz, Baratzondoko eraikina egin zenetik gaizki gelditutako kUNETAK eta instalazioak hodi berri baten bitartez bideratu dituzte beheko zokoraino. Bide beretik Unanua auzo aldera segituta, akautua gelditu da Etxexuri inguruan hasita Elutseta auzoraino heldu den paretara, bere baranda eta guziz.



Dotore gelditu dira bide eta paretak.

Parrokiak ibilaldia antolatu du maiatzaren 16an Agoitzaldera

TTIPI-TTAPA

Parrokiak urteroko irtenaldia prestatu du eliza garbitzen laguntzen dutenentzako. Arantzakoekin batera. Maiatzaren 16an izanen da, Agoitzaldera. 08:00etan aterako da autobusa herriko aparkalekutik eta, eguna hasteko, irudi eta musikaz hornitutako ikuskizunaz

gozatzeko aukera izanen dute Agoitzen. Itoitzeko urtegia bisitatuko dute ondotik, hango berri ematen dieten bitartean. Agoitzen bertan bazkaldu ondotik, Nafarroa Arena pabilioia ezagutuko dute, bisita gidatuaren bitartez. Maiatzaren 4ra arte eman daiteke izena.



OSKAR TXOPERENA

Gaztetxoak bikain herri kiroletan

Nafarroako herri kirol txapelketan Igantziko bi talde aritu dira aurten: 11-12 urteko kimu mailakoa eta 13-14 urteko haur mailakoa. Azken hauek txapela ekarri dute herrira. Gazteenak bosgarren postua lortu eta finalera pasatzeko atarian gelditu dira. Bi taldeak ageri dira argazkian.

Baratzondokoak Zeanurira joanen dira maiatzaren 11n

Baratzondoko jubilatuen elkarteak Zeanuriko azoka bisitatzeko ateraldia antolatu du maiatzaren 11rako. 08:00etan abiatuko dira eta azoka bisitatu ondotik Aginaga sagardotegian izanen dute bazkaria etxerakoan. Hilaren 4ra arte eman daiteke izena.

UDAL HAUTESKUNDEAK



HERRI TALDEA
Juan Carlos
UNANUA
NAVARRO

2. Joseba Patxi Xabier Sarasola Salegi. 3. Manuel Maria Telletxea Iparragirre. 4. Raket Migelena Telletxea. 5. M^a Mercedes Zelaieta Oskoz. 6. Estibaliz Mentaberri Pascual. 7. Roberto Txoperena Iturbide.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailera jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauzena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Kalamuari buruzko hitzaldia antolatu dute gazteentzat

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik ortzirale honetan egingen da Baskulan

NEREA ALTZURI

Kalamuak zure garunari eragiten dio. Izenburu horixe duen saioa antolatu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ortzirale honetan, maiatzak 3, gure herrian. Zehazki 15 eta 20 urte bitarteko gazteei bideratua izanen da eta Baskulan egingen dute.



Kalamua izanen dute hizpide.

Informaziorako eta hausnarketarako tartea

Saioaren helburua informazioa ematea izanen da, kalamuaren edo marihuanaren kontsumoak dituen arriskuez gazteak ohartarazteko eta ondorioen inguruan sentsibilizatzeke. Ekimenarekin gazte bakoitzak bere erabakiak har ditzan bulztatu nahi dute eta aldi berean, kontsumitzen hasteko adina gibelatzea edo ez kontsumitzea ere sustatu nahi dute. Uste

faltsuen inguruan hausnartzeko ere aprobetxatuko dute. Informazioa jasotzeko tartea ez ezik, ortziraleko saioa parte-hartzaileentzat hausnarketarako espazioa izatea nahi dute antolatzaileek.

Izen-ematea

Parte hartu nahi dutenek 634 22 36 59 telefonora mezua bidali beharko dute, WhatsApppe. Saioa Bortzirietako hezitzaileak gidatuko du.

Eliza garbitzeko bidaia maiatzean eta merienda ekainean

Eliza garbitzen aritzen diren herritarrentzat ateraldia aurten maiatzaren 16an egingen da, Agoitz eta Iruñera. Eta joan ezin dutenek merienda ekainaren 14an, 19:00etan Zahar Txokon izanen dute. Izena emateko Martini deitu behar da maiatzaren 4a baino lehen.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
Dabid
ITURRIA
ALMANDOZ

2. Leire Mitxelena Gamio. 3. Iñigo Sarrias Zoco. 4. Beñat Mitxelena Danboriena. 5. Imanol Lukanbio Larretxea. 6. Joseba Pikabea Iribarren. 7. Markel Jorajuria Elizondo.



ENEKO SARRIAS

Hiru txapel Bortzirietako txapelketan

Bortzirietako Banakako Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten apirilaren 13an herriko frontoian. Zazpi final jokatu ziren eta hiru txapel herrian berean gelditu ziren. Argazkian Iker Irribarria pilotariarekin ageri diren Ander Etxegarai, Xabi Leiza eta Oskitz Madariaga txapeldun izan ziren.

Nafarroako Akordeoilarien Topaketa arrakastatsua

N. ALTZURI

Joan den apirilaren 13an, Nafarroako Akordeoilarien Topaketa egin zen herrian. Eguraldi ezin hobea lagun zutela, ehun akordeoilari inguru bildu ziren ekitaldian.

11:00etan plazan bildu ziren. Gregorio Mitxelena herriko akordeoilariak eta topaketaren antolatzaileak hitz batzuk egin ondotik, herriko alkatea den Juan Migel Almandozek ere solas batzuk egin zituen, musika tresna honek herriarekin izan duen lotura eta herriko lehenbiziko akordeoilariak

gogoan izan zituen. Horrez gain, eskerrak eman nahi izan zituen topaketa herrira ekaritzeagatik.

Segidan, berriki berreskuratutako aspaldiko fandango bat jo zuten herriko akordeoilariak, Aintzane Pikabeak kristinak jo eta Jaione Mazizior eta Julian Larretxeak dantzatu zuten bitartean.

Ondotik Udalak hamaitakoa eman zien musikariei eta gero, herriko karraketan barna kalejiran ibili ziren. Aterpeko bazkalondoa ere akordeoi hotsez alaitu zuten.



Goian herriko akordeoilariak eta behean topaketan bildu zirenak. IGOR UGALDE

Eskuz banakako 18. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Iker Irribarria pilotari profesionalak banatu zituen zazpi kategorietako txapelak eta garaikurrak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz banakako 18. pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten apirilaren 13an Arantzako udal pilotalekuan. Denera zazpi kategorietako finalak jokatu zituzten. Ttikietan, B mailan, Berako Izei Irazokik 18-8 irabazi zion Berako Aitor Etxegarairi eta A mailan, Arantzako Ander Etxegarai 18-8 nagusitu zen Igantzik Urko Telletxearen aurka.

Umeen mailan, B mailan, Arantzako Xabi Leitzak jantzi zuen txapela, 18-4 irabazi baitzion Lesakako Ainitze Mar-

tinezi, finalera ailegatzea lortu zuen neska bakarrari, hain zuzen. A mailan, bertzalde, Legasako Xuban Lakarre jantzi zuen txapela, Berako Markel Irazokiri 18-8 irabazi ondotik.

Kimuen mailan, lesakarren arteko finalean Unax Bereauk 18-13 irabazi zion Aimar Otxandorenari.

Haurretan, B mailan, Arantzako Oskitz Madariagak 18-12 irabazi zion Ekai Madariaga lehengusuari. Jaialdiko azken partidatan, haurren A mailan, Lesakako Oier Orbegozok jant-



Txapelketan parte hartu duten pilotariek sariak jaso zituzten. JON MARTINEZ

tzi zuen txapela, Andde Maritorea beratarrari 18-6 irabazi ondotik.

Finalen ondotik sari bana-keta egin zen eta Bortziriak pilota elkarteko ordezkariekin batera, Iker Irribarria pilotari profesionalak banatu zituen oroigarriak eta txapelak. Erran beharrez da, neska-mutikoak kontent atera zituzten argazkiak buruz buruko txapeldun izandakoarekin.



Iker Irribarria, Etxalarko pilotariek.

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

AMETS

Sukaldeak eta bainuak neurrira egiten ditugu

Egongelak

Logelak

Sukaldeak

Bainuak

Gazteentzako logelak

Sofak

Armairuak

Koltxoak

948 630 537 mueblesamets.com



JAKINARAZTEN DA: 2019ko lehen sei hileko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe

2019ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA €/urteko	TRATAMENDU TASA
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	79,8 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	68 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	55,9 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta elektragailuen sektoretakoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak.	81,1 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoa.
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), elektragailu dendak eta farmaziak.	159,2 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	242,8 €	
1. Ostataua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak.	161,8 €	2019ko urtarrilaren 24ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 16 zk
2. Ostataua. 30 m ² baino azalera handiagoko ostatauak eta janari denda daukaten ostatauak.	323,9 €	
3. Ostataua. Pub eta diskotekak.	404,6 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkartea gastronomiakoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	404,6 €	
2. Jatetxea. Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	728,6 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA €/urteko	TRATAMENDU TASA
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoak	81,1 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	69 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	56,8 €	
2. Landetxeak: 6 toki baino gehiagokoak.	162,30 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	138,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	113,60 €	
1. Hostala. Hamar logela edo gutxiagokoak	566,3 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoa.
2. Hostala. Hamar logela baino gehiagokoak	809,2 €	
Merkataritzako saltokiak. Opariak bakarrik saltzeko	404,1 €	2019ko urtarrilaren 24ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 16 zk
Merkataritzako saltokiak. Janaridenda edota ostatudunak	809,2 €	
Merkataritzako saltokiak. Jatetxedunak	1.213,9 €	
Lantegiak, lau langile bitarte. Lanbide-jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	81,1 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	161,8 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	404,6 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	809,2 €	
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.213,9 €	
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.300,1 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiagorekin	3.390,2 €	
Norberak erabiltzeko edukiontzia	786,4 €	

Ordaintzeko era

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

- 2019ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2019ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekararekin kobratuko da.

Etxalar, 2019ko apirilaren 1a.
 Lehendakaria,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

BORTZIRIAK

Sare-On tailerrak eginen dituzte Lesakan

Gurasoei eta haur eta nerabeekin esku-hartzen dutenei zuzendua, maiatzaren 6an eta 13an eginen dute

TTIPI-TTAPA

Teknologia, informazioa eta komunikazioaren garaian helduok tresna hauen aukerak ezagutu eta beraietan haur eta nerabeak hezten trebatzeko *Sare-On: arriskuak, aukerak eta prebentzioa* tailerrak antolatu ditu Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Bakeolak emanen dituen tailerrak euskaraz izanen dira maiatzaren 6an eta 13an, 17:00etatik 18:30era Lesakako erabilera antitzeko aretoan.

Izen-ematea doan izanen da, info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora idatziz edo 634 223659 zenbakian (whatsapp). Bortziritako gurasoei eta haur eta nerabeekin esku-hartzen duten begiraleei edo profesionaleri zuzendutako tailerrak izanen dira. Nerabe eta gazteen artean ematen diren indarke-riazko harremanak (ciberbullying, bikotean...) identifikatu, aintzin egin edo ekiditea, internet eta sare sozialen aukerak eta arriskuak identifikatzea eta erabilera arduratsua sustatzea dira helburu nagusiak.



UTZITAKO ARGAZKIA

ALYME elkarteak eskertza Manttaleri

ALYME elkarteak bere eskerrik beroenak eman dizkio Manttale Mendi lasterketa Taldeari, apirilaren 14an eritasuna ezagutzera emateko eskaintako aukera eta laguntzarengatik. Lyme gaixotasunari buruz informazioa zabaldu zuten Berako Mendi Maratoi Erdian parte hartu zuten guztien artean.

ETBko 'Autentikoak' saiora publiko moduan joateko aukera

Etxalarko Larraburua elkarteak ETBko Autentikoak saiora joateko autobusa antolatu du maiatzaren 16an. Hilaren 5era-ko apuntatu behar da.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

EDERKI tailerra

CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

logurak
www.logurak.com

gauko konfort-kuxina

Centro Prim regina tolosaecheppure

TELEFONO GIDA 2019

INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK

Baztan | Bertizarana | Bortziriak | Malerreka | Mendialdea | Urdazuri



Zure enpresa sartu nahi?

Milaka pertsonak ikusiko dute zure iragarkia

- Komertzioak
- Lantegiak
- Zerbitzuak
- Erakundeak
- Partikularrak...



5.700 ale
Praktikoa
eta erraza

Zure enpresaren datuak internet eta app bidez klik batean



Informa zaitez

T. 948 63 54 58 | ttipigida@gmail.com

1.260 pintxo saldu dituzte VII. Pintxo Astean

Jon Maritxalarrentzat izan ziren parte-hartzaileen artean zozketatutako urdaiazpikoa eta bi botila ardoak

MAIDER PETRIRENA

Apirilaren 18tik 20ra bitarte Sunbillako Bustitz, Fonda eta Ariztigain Kanpinak VII. Pintxo Astea ospatu zuten. Bakoitzak bina pintxo egin zituzten. Guztira 1.260 pintxo saldu zituzten eta puntuaziorik gehiena lortu zuena Fondako bakailu tostada izan zen.

Igande arratsaldean, kanpinean, magra bat eta bi botila ardoren zozketa egin zen eta irabazlea Jon Maritxalar Etxenike izan zen.

Urtero bezala haurrendako jokoak eta txokolatada ere izan



Fondako pintxo, boto gehien zituena.

zuten. Eguraldi ederra lagun, pintxoak dastatzen ez ezik, herriko landetxe eta kanpinean jende dezente ibili da Aste Santuan.



MAITANE IBARRA

Kontxako barandan dantzan ibili da herritarra

Rebeca dantza taldeko dantzariak Donostiako Kontxako barandan dantza egiteko aukera izan zuten joan den apirilaren 14an. Bertan parte hartu zuen, bertzeak bertze, Maialen Maritxalar Ibarra sunbildarrak.

Ulibeltzak elkarteko junta aldatu dute batzar orokorrean

Ulibeltzak elkarteko batzar orokorra egin zuten. 2018ko kontuez eta 2019ko bestez solastatzeaz gain, junta aldatu zuten: Iñigo Arrieta, Aitor Ibarra, Janire Apeztegia, Mari Paz Gelbentzu, Juan Ignacio Herrera, Itxaso Arrieta, Xabier Petrirena eta Ruben Irigoien.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
Amaia
INDA
GORRIARAN

2. Jose Francisco Errandonea Zubieta.
3. Esther M^a Inocencia Fernandez Casas.
4. Florentino Gelbenzu Almandoz.
5. Ixaro Petrirena Gortari.
6. Mario Mitxelena Bazterrika.
7. Joxe Bidal Ibarra Iriarte.



BIXENTE IBARRA

Bi herritar judo txapelketan

Apirilaren 13an, Mendillorriko kiroldegian judoko alebinen bigarren eta azkeneko fasea jokatu zen. Bertan bi sunbildarrek parte hartu zuten, Hodei Gastesi Etxebestek eta Jon Ibarra Olaetxeak. Saio ederra egin zuten biek. 47 kilokoetan Jon Ibarrek zilarrezko domina herrira ekarri zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bartzelonako Ritme Alaia jaialdian

Apirilaren 18tik 21era bitarte, ortzegunetik igandera, Hegoa Irazoki Urtxegi eta Yuliana Boyko herritarrak Bartzelonan izan dira, Rebeca dantza taldeko bertze zenbait kidekin batera. Bertan Ritme Alaia 2019 egitasmoan parte hartu zuten.

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ola
SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.eus

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA



Malerrekako ahari onenak sarituko dituzte ferian. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ahari onenak sarituko dituzte Udaberriko Ferian

Maiatzaren 11n egingen dute Malerrekako XII. ahari lehiaketa eta eskulangileen produktuak ere ikusgai izanen dira

MARGA ERDOZAIN

Maiatzaren 10ean (ortziralean) Merkatuko plazan ospatuko da Udaberriko Feria. Ohi bezala, Malerrekako ahari lehiaketa ere egun horretan erabakiko da. Aurten, hamabigarren edizioa beteko du lehiaketak. Goizeko 11etatik 13:30era epaimahaikoez ekarritako ahariak aztertuko dituzte, ondoren sariak banatzeko. Sei sari banatuko dituzte: hiru ahari mutur gorriandako eta hiru mutur beltzendako. Kategoria bakoitzean lehendabiziko saria eskuratzen dutenek 120 eurona irabaziko di-

120, 70 ETA 50 EURO IZANEN DUTE SARITZAT SAIL BAKOITZEAN

tuzte, bigarren saria lortzen dutenek 70 eurona eta hirugarren saria irabazten dutenek 50na.

Lehiaketa honetaz gain, azken urtetan bezala, goizean Malerrekako eskulangileen feria ere egingen da eta beraien produktuak ikusgai eta erosgai izanen dira.

Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako saioa

Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako saioa jokatuko dute maiatzaren 11n, larunbatean 17:00etan Ezkurrapilotalekuan. Gizonezkoen 300 kiloko, emakumezkoen 235 kiloko eta kadeteen 280 kiloko kategorietako lehen jardunaldia jokatuko dute.

II. Argazki Rallya maiatzaren 11n izanen da

Maiatzaren 11n, 10:30ean hasiko da II. Argazki Rallya. *Udaberria* eta *Doneztebeko etxeak* gaien inguruan argazki bana egiteko lana izanen dute. Sariak: 150 euroko bi sari (gai bakoitzeko irabazleari), 50 euroko bi sari, herriko onenari eta argazkilari gazteenari.

Amaiurko Gaztelu taldearen eta Mendi abesbatzaren kontzertua larunbatean

MARGA ERDOZAIN

Maiatzaren 4an, 12:30ean Amaiurko Gaztelu taldearen eta Mendi abesbatzaren kontzertua izanen da. Punta-puntako musikariak hurbilduko dira: Nafarroako Orkestrako bibolin kontzertinoa den Yorrick Troman izanen da izar nagusia, Liesbeth Baelus emaztearekin batera. Eta pianoan, Amaia Cordoba erratzuarra ariko da. Gaztelu eta Mendi abesbatzei laguntzen ariko dira eta bakarkako saioa ere eskainiko dute, kontzertuari freskotasuna emanez. Progra-

maren ildo nagusia euskal kantak izanen dira.

Maiatzaren 8an Institutuen arteko musika topaketa antolatuko dute. Eskualdeko ikasleek musikaren bidez adiskidetzeko ariketa zoragarri hau beteko dute. Kontzertua Ezkurra pilotalekuan 17:00etan izanen da.

Maiatzaren 10ean *Hartz eta Otsoekin lotan* filma ikusgai izanen da zinema aretoan 19:30ean. Iñaki Atxak egindako pelikulak Bilboko Mendi film laburren lehiaketa irabazi du.



ERREKA KE

28 urte eta gero Erreka txapeldun!

Denboraldi historikoa liga etxean irabaziz borobildu du Erreka eskubaloitza talde nagusiak. Asteburu honetan kopako finalaurrekoa jokatuko du eta hori irabaziko balu, finala izanen du maiatzaren 4an. Maiatzaren 10etik 12ra Lehen Maila Nazionalerako igoera sektorea jokatuko du.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
Xanti
UTERGA
LABIANO



NAVARRA SUMA
Serafín
LOPEZ
FLOREZ

2. Pello Grazeña Esain. 3. Leire Ortuoste Gartzia. 4. Oier Zulaika Arakistain. 5. Mikel Mutuberria Santesteban. 6. Marga Erdozain Azpilikueta. 7. Nerea Telletxea Santesteban. 8. Ion Etxekolonea Senar. 9. Miren Lide Zinkunegi Artzelus.

2. Idoia Agirre Oteiza. 3. Clara Santamaria Alcocer. 4. Manuel M^a Lazkoz Artanga. 5. Alberto Bonilla Zafra. 6. Jesus Moreno Hernando. 7. Elisa Eraso Alkasena. 8. M^a Nieves Ballarena Erramuzpe. 9. Iñaki Iriarte Lopez.

Bestak antolatzen hasiak dira dagoeneko

Aurten nesken arteko frontenis txapelketa izanen dute eta partidak aitzinetik jokatuko dira

ARKAITZ MINDEGIA

Iturendarrak bestak prestazeko bileretan hasiak dira, bertze urteetan bezala adin guztietako herritarrentzat ekitaldiak antolatzeko. Aurten uztailaren 18tik 21era, ortzegunetik igandera, izanen dira.

Ekitaldiak oraindik lotzeke badituzte ere, nesken frontenis txapelketa izanen da. Animatu diren sei bikoteak aitzinetik jokatuko dituzte partidak, maiatz inguruan hasita, herriko plazan. Haizea eta Irun; Eider eta Itxaso; Enara eta Iratxe; Izaro eta Estefania; Ane



Uztailaren 18tik 21era bestak.

eta Maria; eta Naroa eta Mainer dira izena eman dutenak. Bertzalde, haurrentzako frontenis txapelketa ere izanen da.

Volcat lasterketan 40. postua lortu du Seinek

Apirilaren 18tik 21era Katalunian egindako Volcat lasterketan kategoria absolutuan 40. postua lortu zuen Javier Seinek. Apiril hondarrean Ilunberrira joatekoa zen eta maiatzean, Aiegira eta Deikaztelura.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrian bisitariak izan dira Aste Santuan

Herriko landetxeak eta aterpea jendez beteta egon dira Aste Santuko egunetan. Herrira etorri diren bisitariak eguraldi bikainaz gozatzeko aukera izan dute, eta horri esker, inguruko herrietan eta eskualdeko txoko ederretan barna ibili ahal izan dira.

Aurtizko joaldunak ekainean Beasainera

Udaberri giro betean, Aurtizko joaldunak han eta hemen ibili dira joareak astintzen eta ikusleak gozarazten. Apiril hasieran, erraterako, Bergarako ferian izan ziren, urteroko zita izan zuten. Ekainaren 9an, berriz, Beasaingo jaietara joatekoak dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bilboko Mus Olinpiadan

Jaione, Timoteo eta Liborio Ariztia Bilbon jokatuako Mus Olinpiadan izan ziren apirilaren 12tik 14ra. 56 taldek, 598 muslarik, parte hartu zuten eta 1.295 partida jokatu zituzten. Nafarroatik hiru talde aritu ziren eta argazkiko taldeak irabazi zuten. Liboriori jokalaritza onenaren saria eman zioten.

Malerreka Eguna maiatzaren 18an Ezkurran

Hauteskundeak direla eta, astebete aitzineratu dute aurten Malerreka Eguna. Herri-tarrak Ezkurran bilduko dira maiatzaren 18an, azken aitzinetiko larunbatean. Egitarau zehatzaren berri hurrengo TTPI-TTAPA zenbakian emanen da.

Malerreka Kantuz larunbatean Beintza Labaienen

Maiatzaren 4an, larunbatean, Beintza-Labaien kantuz girotzeko hitzordua izanen dute. 12:00etan zehaztu dute hitzordua, herriko plazan eta bertatik abiatuta herriko karriketaren barrena ibiliko dira. Ondotik, Sunbillara pasako dute lekukoa.



ARANTXA ITURRALDE

Gaztain ximel eguna Beintza-Labaienen

Beintza-Labaiengo haurrak usadio zaharrari eutsiz, gaztain ximel eguna izan zuten ortzegun santuan. Meza ondotik, herriko haurrak etxez etxe gozokiak jaso eta belaunaldiz belaunaldi gorde, zaindu eta abesten den bertsoa kantatu zuten.

Plazaren urteurren ekitaldiaz bilera maiatzaren 25ean

Ideiak bildu eta guztien artean egun ederra osatzeko proposamenak luzatu dituzte

FERMIN ETXEKOLONEA

Plazaren mendeurrena antolatzekeo bigarren bilkura apirilaren 13an egin zuten. Guztira 13 lagun inguru bildu ziren eta ideiak biltzearekin batera, proposamenak luzatu zituzten.



Ospakizun eguna zehazteke dute.

Bideoak grabatu eta tradiziozko jokoan nondik norakoak bildu

Argazki gehiago biltzen jarraitzea adostu zuten. Areago, irudi zaharrek batera, egun-goak bildu eta plaza-giroaren aldaketa islatzeko aukera mahairatu zuten. Gisa bertsuan, herritarrak inplikatu nahian, proposamenak egin zituzten. Bertzeak bertze, 18-20 urte bitarteko gaztetxoei adineko jendearekin (atautxi-amatxi edo herritarrek) solastatu eta garaiko giroa, gaztetako kontuak, apustuei eta bestelako besta egunei

buruzko galderak eginez bideotxoak grabatzeko deia egin zieten. Gaztetxoagoi, 8-9 urte arteko, berriz, garaiko jokoei buruzko informazioa galdezko eskatzea adostu zuten, ondorik horiek bilduz liburuxka bat egiteko eta ospakizun festan joko horietan jolasteko.

Maiatzaren 25ean

Ospakizun eguna oraindik zehazteke badago ere, bileraz bilera antolatze-lanak aurrera doaz. Hurrengo maiatzaren 25ean, hondarreko larunbatean, izanen dute. Herriko Ostatuan bilduko dira, 19:30ean. Orain artean bezala, aurrerapausoak aztertu eta hurrengo egitekoak banatuko dituzte.

ELKARRIZKETAK EGITEKO ETA INFORMAZIOA BILTZEKO DEIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrak sagardotegian

Urtero bezala, aurreneko herriak sagardotegian izan ziren apirilaren 20an, larunbatean. Argazkian ageri den lagun-taldeak, denboraldia borobiltzeko afari ederra egin ondotik, mahai-inguru eta solasaldi ederraz gozatzeko aukera izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Helpidea proiektua martxan herrian

Apirilean Helpbidea proiektua aurkeztu zuten herrian. Horren helburua, metro-baserri planoarekin batera plaka identifikagarriak txertatu eta eraikinen kokapen zehatza jasotzea da, bereziki larrialdi kasuetan zerbitzua azkarrago jaso ahal izateko.

LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

BRIKO
BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra
Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

UDAL HAUTESKUNDEAK



HERRIKO TALDEA
Ernesto DOMINGUEZ OLEA

2. Leire Bazterrika Loiarde. 3. Patxiku Mitxelena Zelaieta. 4. Imanol Baleztena Elizalde. 5. Ezekiel Loiarde Santesteban. 6. Martxel Elizalde Elizalde. 7. Pedro Santesteban Loiarde.

Turismo elkargoak bisita gidatuen eskuorria atera du

TTIPI-TTAPA

Udaberriarekin bat eginez, bisitarien joan-etorria areagotzen denez, Baztan-Bidasoa Turismoak aurten ere bisita gidatuak biltzen dituen eskuorria karrikaratu du. Aurtengoan, eskualdea goitik beheiti ezagutzeko 16 esperientzia biltzen ditu, herriak, kultura, gastronomia eta abentura uztartuz.

Berrikuntza ugari

Eskualdera datozen bisitariak bisita gidatuen eskaintza guztia publikazio bakarrean aurkitzea da eskuorriaren helburua.

2019ko edizioak berrikuntza ugari dakartza gainera, bai bisita kopuruari dagokionean, aurten 16 bisita daude aukeran, iaz baino bi gehiago; baita bisiten gaiei dagokionean ere.

Bisita gastronomikoa

Berrikuntzen artean, Bidasoko Bide Berdean barna, Amez-



Doan eskura daiteke.

tia BTTk eskaintzen duen bisitaz gain, bisita gastronomikoen atalaren handitzea dugu: Kortariko gasna eta Jauregia gasnategietan atea zabalduko dizkigute gasna nola egiten duten erakusteko; Amaiurko errota bisita eta talo tailerra eta dastaketa egin ahako ditugu; Esarte harategian txistorra nola egiten duten erakutsiko digute eta Irurita-ko Arkupe Gozotegian txokolatearen prozesu guztia ikus-

teko aukera ere eskainiko digute.

Berrikuntza ugari

Abentura alorrean, Beintza-Labaingo Lezealde kobazuloan espeleologia egiteko proposamena; Bertiz Abentura Parkeko bisita eta Irrisarrri Landek proposatzen duen *Baxiko Natura* ditugu. Baita Ordoki Zalditegiak proposatzen digun zadi gaineko ibilaldia ere.

Historia, artea eta herrien esparruan: Urdazubiko lezeak; Etxalarko herria; Kontrabando gauez; Etxalarko usategiak; Baztan Trilogia eta Baztan Toursen eskaintza Zugarramurdi, Urdazubi, Gorramendi/Elizondo ezagutzeko. Bisita Gidatuen eskuorrian, bisita bakoitzaren ordutegia, prezioa, erreserba telefonoa eta baldintzak zehaztuta agertzen dira.

Dagoeneko eskuragarri, doan

Eskuorria doakoa da. Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoko establezimenduetan eta Turismo bulegoetan dago eskuragarri. Baita sarean ere, Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoko web orrian (www.baztan-bidasoa.com) zehazki.

Udal zerrenda eta kontzejurako talde bana Bertizaranan

Andres Etxenike alkate duen Euskal Herria Bildu udal taldeak segiko du indarrean Bertizaranan, aurkeztutako zerrenda bakarra horixe izan baita. Legasa eta Narbarteko kontzejuetan, momentuz, ez da hautagairik aurkeztu eta Oierregikoan Jose Javier Noseillas Zabalegi buru duen zerrendaren esku geldituko dira urteotako kudeaketa-lanak. Zerrendaburuarekin batera honako hauek osatuko dute taldea: 2. Juana Paula Galañena Iriarte; 3. Jose Maria Galarregi Apeztegia; 4. Alejo Mindegia Mindegia; 5. Carlos Zamora Turrillas.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
Andres
ETXENIKE
IRIARTE

2. Blas Andresena Etxeberria. 3. Jose Antonio Sarratea Rekarte. 4. Jabier Grajirena Mutuberria. 5. Jose Antonio Jauregi Juantorena. 6. Joakin Mutuberria Oteiza. 7. Jokin Uhalde Iribarren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joko Topaketa berezia izan da aurtengoa

Argazki koloretsua eta berezia utzi du Malerreka eta Bertizaranako eskola ttikien IX. Joko Topaketak. Izan ere, Beintza-Labaiengo eskolak azken ikasturtea izanen du aurten, eta beraz, bertako ttikiek azkenekoz parte hartu zuten eskola ttikien besta horretan. Jolasean ibili ondotik, Zirkozaurre ikuskizunaz gozatuz akitu zuten eguna Sunbillan.

Sei herritan ez da hautagaitzarik aurkeztu

Donamarian, aldiz, baten faltan bi aurkeztu dituzte: Denongatik eta Herriarengatik taldeak

TTIPI-TTAPA

Malerrekako hamabi herrietatik seitan, Iturenen, Oizen, Elgorriagan, Eratsunen, Ezkurran eta Urrozen zehazki, ez da udaletxerako zerrendarik aurkeztu. Donezteben (ik. 23.or.) eta Donamarian, berriz, bina talde aurkeztu dituzte. Gainerako herrietan, hau da, Saldiasen, Beintza-Labaienen, Sunbillan (ik. 22.or.) eta Zubieta (ik.25.or.), dagoeneko badakite zein taldekidek osatuko duten Udala, lau herri horietarako zerrenda bakarra aurkeztu baita.

Zerrendarik gabeko sei herriek urrirako taldea osatzeko eta aurkezteko aukera izanen dute.

Donamariarrek Joseba Otxandorena buru duen Denongatik eta Natalia Rekarte alkategaitzat duen Herriarengatik taldeen artean aukeratu beharko dute hauteskundeetan. Doneztebeko herritarren hitzak erabakiko du Xanti Uterga buru duen EH Bilduren edo Serafin Lopezen gidaritzapean aurkeztu duten Navarra Sumaren esku utzi alkatetza.

UDAL HAUTESKUNDEAK- DONAMARIA



DENONGATIK
Joseba OTXANDORENA GRAZENA



HERRIARENGATIK
Natalia REKARTE OTEIZA

2. Imanol Huizi Amigorena. 3. Enara Cubero Galarregi. 4. Mikel Elizaga Mujika. 5. Nerea Zubillaga Olano. 6. Miriam Mindegia Grazena. 7. Aitor Telletxea Lastiri.

2. Igor Arregi Azpiroz. 3. M^o Fatima Mitxeo Mendiola. 4. Juan Jabier Leatxe Oskoz. 5. Jose Miguel Sarratea Oteiza. 6. Gaizka Baigorri Belaza. 7. Josu Jorajuria Bazterrika.

UDAL HAUTESKUNDEAK

SALDIAS - INDEPENDENTEAK

1. Jacinto Dominguez San Nazario. 2. Julian Erasun Erasun. 3. Imanol Etxeberria Urrutia. 4. Zorion Ezkurra Baleztena. 5. Iñigo Zubeldia Telletxea.

Maiatzaren 26an, hondarreko igandean, herritarrek hartuko dute hitza. Eskualdeko udal hauteskundeetako emaitzak ERRAN.EUS atarian ikusi ahal izanen dira eta aitzineko

UDAL HAUTESKUNDEAK

BEINTZA-LABAIEN - HERRIARENGATIK

1. Jon Telletxea Juanenea. 2. Alejandro Saldias Otxandorena. 3. Jesus Bertiz Goñi. 4. Martin Mindegia Labaien. 5. Juan Gamio Grazena.

urteetako emaitzekin alderatzeko aukera ere eskainiko da. 1977tik gaur egun arteko datu guztiak bildu dituzte eta emaitzak grafikotan ikusteko aukera eskainiko dute.

DONEZTEBEN neurria egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**





Interesgune nagusiak bisitatu dituzte. FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko 64 bazkide Madrilen izan dira

F. ETXEBERRIA

Apirilaren 8tik 11ra bitarte, astelehenetik ortzegunera, elkarteko 64 kide Alcalá de Henares, Madril, Aranjuez, El Escorial eta Segovian barrena ibili ziren.

Alcalá de Henares

Alcalá de Henaresen egin zuten lehendabiziko geldialdia, eta gidari baten eskutik uni-bertsitatea, Cervantesen etxea

eta Corral de Comedias antzokia bisitatu zituzten. Bazkalondoan Madrilerako jo zuten.

Madrilatik Aranjuezera

Bigarren egunean Madril eza-gutu zuten, oinez ibilaldi polita egin bitartean. Kale Nagusia, Sortaldeko plaza, Errege antzokia, La Almodena katedrala... ikusi zituzten. Biharamunean, berriz, Aranjuezera joan ziren.

Aranjuez en bertako errege jauregian eta lorategietan, ikusmira gehien eragiten duten tokietan, ibili ziren. Ondotik, Toledon bazkaldu zuten. Bazkalondoan, euriari aurre eginez, katedrala –barneko museo eta guzti– eta inguruko gainerako interesguneak bisitatu zituzten.

Hondarreko eguna El Escorialen

Hondarreko eguna El Escorialen pasa zuten. Bertzeak bertze, Errege Jauregia, erregeen hilobia eta egoitza bisitatu zituzten. Ondotik, Segovian txerrikumea dastatu zuten.

Egun ederrak pasatu ondotik, ortzegunera 22:00ak aldera ailegatu ziren etxera.

Zugarramurdiko ordezkari izateko boluntario bila

Orain artean Zugarramurdiko ordezkari izan den Joxe Iratzokik elkartean zuen kargua utzi du. Lerro hauen bidez elkarteko kideek bai berari baita bere alabari urte hauetan guztietan elkartearantz, borondatez, egin duten lana eskertu nahi izan diete. Bide batez, elkartek bere kargua hartzeko eta Zugarramurdiko ordezkari izateko boluntarioak behar dituela jakinarazi du. Nahi duenak elkarera jo edo bertako norbaitekin harremanetan jarriz lor dezake informazioa.

Maiatzaren 21ean mendi-irteera Leitzan

Joan den apirilaren 16an Etxalarren egindako mendi-itzulia ederraren ondotik, hurrengo mendi-hitzordua adosteko tarte bat hartu zuten. Bortziritatik Leitzaldera pasa zuten lekukoa eta maiatzaren 21ean, hirugarren asteartean, zehaztu dute eguna. Aldi horretan mendizaleak Leitzan bilduko dira. Kaskantak antolatutako itzulia egin nahi dutenak herriko plazatik abiatuko dira. 08:30 inguruan zehaztu dute hitzordua. Hurrengo itzulien berri eguna hurbildu ahala emanen da.

Etxalarko lurretan egin dute apirileko mendi-itzulia

Argazkiko lagun-talde ederra Etxalarren ibili zen apirilaren 16an. Lizarietan bildu eta Atxuri alderantz jo zuten, Usategietatik pasa eta Hirumugarrin ogitarteko bat jan ondotik, eguerdian ailegatu ziren.



F. ETXEBERRIA

5.000 euro banatuko dituzte erosketa-bonuetan

Bortz urte beteko ditu aurten Denok Bat Federazioaren giltzariak eta ospatzeko erosketa-bonuak zozketatuko dituzte

TTIPI-TTAPA BAZTAN-BIDASOA
Bezeroen fideltasuna saritzeko sortu zuten, eta bide bereetik segitzen dute bortz urte beranduago. Bertan Baztango Merkatarri, Zerbitzu eta Ostalaritza Elkarteak, Larun Haizpe Berako Zerbitzu, Merkatarri eta Ostalaritza Elkarteak, Lesakako Zerbitzuen Elkarteak eta Doneztebarrak Doneztebe merkatarien elkarteak elkarlanean aritzeko sortu zuten Denok Bat Federazioa. Eta elkarlan horren bertzeko emaitzetako bat giltzaria izan zen: 2014an federazioaren

barne dauden hainbat komertzio eta zerbitzuzko bezeroak saritzeko giltzaria atera zuten. Datuak dira giltzariak izan duen arrakastaren lekuko: gaur egun 5.300 giltzari banatuak dituzte eta Baztan, Bera, Lesaka eta Doneztebeko 26 dendetan erabil daitezke.

Abantailak

Giltzaria duten bezeroentzat deskontuak eta hainbat promozio egin izan dituzte bortz urteotan. Aurten, ordea, haratago joan nahi dute eta giltzariak bortz urte beteko di-



Merkatariek duela bortz urte jarri zuten martxan giltzaria. ARTXIBOKO ARGAZKIA

tuela ospatzeko eskaintza berria egin dute: maiatzaren 6tik 18ra guttienez hiru dendetan 20 euroko erosketa minimoa egiten dutenen artean 5.000 euro banatuko dituzte.

Eta guztia bezeroak saritzeko. Hori eta gehiago ere eskaintzen dutelako denda ttikiak: hurbiltasuna, tratua pertsonala, esperientzia, aniztasuna produktuetan, bertako produktuak... Gehiago ere bai, autorik hartzeko beharrik izan

gabe bertatik bertara daude, eskura; bezeroari behar duena momentuan eskaintzen diote gehiago erostera bultzatu gabe, eta hainbat ekitaldi antolatzen dituzte negozioari balio erantsia emanez eta bisitariak erakarritik. Aldi berean, milaka lanpostu sortzen dituzte herrietan eta horrek aberastasuna ematen diela herriei. Landa eremuetako herriak ez husteko gakoak dira, bizitasun handia ematen dietelako herriei.



5 URTE

elkarrekin!

Eta zurekin ospatu nahi dugu!

2019

maiatzaren 6tik 18ra

ZOKKETATZEN DITUGU

erosketa baleetan

5000€

Erosi Giltzariarekin 3 saltoki desberdinetan astero, minimo 20€ erosketa bakoitza, eta parte hartu 250€-ko 6 bale eta 500€-ko 2 baleren asteroko zozketan.

* Erosketa baleak Giltzarira bazkidetuak diren saltokietan aldatu daitezke 2019ko maiatzaren 30a bitarte

* Zozketaren oinarriak bazkide diren saltokietan kontsultatu.

ANTOLATZAILEA: **DenokBat**

LAGUNTZAILEA: **Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra**

Maiatzarekin batera ekitaldiz betea heldu da Kultur Aroa

42. edizioa beteko du aurten ALKEK antolatutako egitarauak

JM BARRIOLA

Maiatzaren 8an hasi eta ekainera bitarte kulturaz gozatze-ko hamaika hitzordu izanen dira herrian. Hitzaldiak, tailerrak, bideo-emanaldiak, kontzertuak... antolatu dituzte ALKEkoek 42. ediziorako eta urteroko moduan artisau-azoka eta Sagardo Eguna ere ez dira faltako.

Maiatzaren 8an, 18:30ean Atekabeltzen bideo-edizio tailerrarekin emanen diote hasiera 42. Kultur Aroari. Hurrengo egunean ordu eta toki berean interpretazio tailerra egingen dute. Bi tailer hauek



Jendetza biltzen du artisau-azokak.

maiatzaren 30ean egingen den film labur-lehiaketarako prestakuntza gisara balioko dute.

Maiatzaren 10ean, musika-zaleek galdu ezineko hitzordua dute, Galesko Parti Cut Lloi abesbatzak emanaldia eskainiko du eta elizan 20:00etan.

Nekazarien eguna antolatu du maiatzaren 15erako Bertatik Bertarak

JM BARRIOLA

Maiatzaren 15ean, San Isidro eguna dela eta, Nekazarien Eguna antolatu du Bertatik Bertara dinamikak, Udalaren laguntzarekin. 11:30ean mahai-ingurua egingen dute Atekabeltz herrigunean, *Nola duindu baserritarraren lana* goi-

-buruarekin. Panpi Saint Marie (ELB), Mirian Otxotorena (Etxalde) eta Imanol Karrera (LAB) gonbidatu dituzte gaiari buruz hitz egiteko. Ondoren 14:00etan bazkaria egingen dute Torrea Tabernan. Izena emateko epea maiatzaren 11n bukatuko da.

Plazaolako biltegiari erabilera berria emanen diote

Eraikinaren beheko solairuan, 147,60 metro koadroko gunean, bizikleten biltegia, tailerra eta komun publikoak egingen dituzte. Apezetxea Anaiak enpresa arduratuko da lanetaz. Udalak Plazaolako bidean hondatuta zeuden hesiak ere aldatu ditu.

Elikadura osasuntsuari buruz hitzaldia maiatzean

Maiatzaren 2an, 17:00etan Erleta eskolako jangelan, *Elikadura osasuntsuan hezitzea, gure ardua!* hitzaldia eskainiko dute Mikel Zabaleta alkateak, Edurne Lekunberri Donibaneako haur eskolako zuzendariak eta Amaia Sagastibeltza pediatrik. LeitzEko antolatu du saioa.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
Mikel
ZABALETA
ARAMENDIA



NAVARRA SUMA
Silvestre
ZUBITUR
GOÑI

2. Nahikari Uriarte Intxaurren 3. Eneko Andueza Aramendia. 4. Maialen Moreno Uharte. 5. Julian Zabaleta Alduntzin. 6. Saioa Sagastibeltza Ganboa. 7. Iñaki Zabaleta Zabaleta. 8. Amaia Jaka Apezetxea. 9. Iñigo Alduntzin Garcia. 10. Junkal Otxotorena Sagastibeltza. 11. Arantxa Irigoien Perurena.

2. Juan Frommknetch Lizarraga. 3. Fermin Azpiroz Martinikorena. 4. Pedro Urkiola Zestau. 5. Fco. Javier Mugika Zubeldia. 6. Xabier Bengoa Muñoz. 7. M^a Nieves Cipres Aznar. 8. J. Miguel Zabaleta Urkiola. 9. J. Josefa Sagastibeltza Zabaleta. 10. J. Miguel Goikoetxea Zabaleta. 11. J. Andres Valencia Ziordia.



NEREA MAZKIARAN

400 bat lasterkari Herri Krosean

Azken astera arte kolokan egon zen Aurrerak antolatzen duen herri krosa baina azkenean apirilaren 13an 41. edizioa bete zuten probak. 230 hurrek, gazte mailako 80k eta senior mailako 98k parte hartu zuten. Aitor Mimenza eta Laiane Arrospide izan ziren 9 kmko ibilbidea osatzen azkarrenak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaztainondoak landatu dituzte ikasleek

Apirilaren 12an, Leitzako Erleta eskolako gaztetxoek auzolana egin zuten Manuel Lasarte ondoko lursailean. Hamabi gaztainondo landatu zituzten, frutarako egokiak. Herri eremuan galdutako dagoen fruitua berreskuratu ahal izanen da horrela.



Jon Martinez lesakarraren 'Bientzat' argazkia, publikoak saritutakoa. JON MARTINEZ

Inauterietako argazki lehiaketak baditu irabazleak

Epaimahaiaren saria Pello San Millan baztandarrak irabazi du eta erabiltzaileena Lesakako Jon Martinezek; bazkaria Iker Gorosterrazu iturendarrari egokitu zaio

TTIPI-TTAPA

Besta bizitzeko milaka modu biltzen dira inauteri hitzaren gibelean eta horren erakusle dira ERRAN.EUS atariak antolatu duen III. argazki lehiaketara aurkeztutako 33 argazkiak. Ituren, Zubieta eta Aurtizko joaldunak, Leitza eta Sunbilla mozorroak, Arizkungo hartza, Lesakako zakozarrak... kolore eta molde guztietako irudiak izan dira.

Pello San Millan baztandarraren *Zakozar eta Marina* argazkiak lortu du epaimahaiaren saria: Nekatur Euskadiko Nekazaturismo Elkarteak eskainitako Nekatur bono orlegia.

400 bozka inguru

ERRAN.EUS eko erabiltzaileek ere izan dute sari bat banatzeko ardura eta 400 bozka inguru jaso dira internet bidez. Jon



Pello San Millanen 'Zakozar eta Marina', epaimahaiaren saria. PELLO SAN MILLAN

Martinez lesakarraren *Bientzat* argazkia izan da bozka gehien jaso dituen; Elgorriagako bainuetxean bi lagunendako zirkuitua eta otordua irabazi ditu.

Argazkilari zein boto-emaitza parte-hartzea saritzeko

Elbeteko posadan bi lagunendako otordua ere zozketatu dute eta Iker Gorosterrazu iturendarra izan da saritua suertatu dena.

Sari-banaketa apirilaren 30ean egitekoa zuten Elgorriagako bainuetxean.



Gidaren azala.

Aisialdia eta Gastronomía Gida argitaratu du Ttipi-Ttapa

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bidasoa, Mendialdea eta Xaretako Aisialdia eta Gastronomía Gida argitaratu eman berri du TTIPI-TTAPAK. Bertan, eskualdeko ehun jatetxe, ostatu, komertzio eta aisialdirako enpresa baino gehiagoren eskaintzaren berri ematen da 88 orrialdetan, bakoitzak eskaintzen dituen berezitasunak eta zerbitzuak azalduz hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Baztan-Bidasoa-Xareta-Mendialdeko mapa bat ere badu.

8.000 ale

8.000 ale argitaratu dira, turistak ibiltzen diren tokietan banatu direnak, jendeak har dezan eta bazkaltzeko edo afaltzeko plana egiten lagungarri izateko. Turismo Bulegoetatik jakinarazi dutenez, Aste Santu honetan arrakasta izan du gidak bisitarien artean eta udan ere halaxe izatea espero dute. Era berean, iragarria jarri duen jatetxe-ostatu bakoitzean ere utzi dira ale batzuk bezeroen artean banatzeko.



Haur eta gaztetxoentzat krosa izanen dute larunbat goizean.

Txinoko festak maiatzaren 3an eta 4an ospatuko dituzte

Bertsolarien saioarekin abiatu eta dantzan bukatuko dituzte festak asteburuan

TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Txinoko Festak ospatuko dituzte ostiral eta larunbatean herrian. Lerro hauek idazterako orduan egitarau osoa lotzeke bazegoen ere, hainbat ekitaldi aurreikusitako zituzten aste bukaera honetarako.

Hasteko bertsolariak eta mus txapelketa ostiralean

Maiatzaren 3an, ostiralean, abiatzekoak dituzte Zubiondon bertsolariak eskaintzekoa duten saioarekin eta 22:30ean

mus txapelketa jokatzea aurreikusitako dute.

Maiatzaren 4an, larunbatean, berriz, 11:00etan haur eta gaztetxoentzat krosa antolatuko dute. Eguerdian, 12:00etan, txupinazo eta dragoiaren irteera izanen dituzte, trikitilarien giropean. Ondotik, herritarren arteko herri-kirol desafioa eskaintzekoa dute. 14:30ean goiko frontoian biltzekoak dira, bazkaltzeko. 18:00etatik aurrera, Bixenteren eskutik, kantu eta dantzan ibiltzeko aukerarik ez dute faltako Yandeko gorapean.

Antton Apezetxea federazio artekoan txapelidun

Antton Apezetxeak eskuz binakako Espainiako federazio arteko txapelketa irabazi du gazte mailan. Nafarroa ordezkatzuz, Iosu Igoarekin batera Errioxako Fernandez eta Garciari irabazi zioten apirilaren 14ko finala Logroñon.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herri-batzarra egingen dute maiatzaren 10ean

Hauteskunde eta, hortaz, agintaldi berri baten atarian, Udalak 2015-2019 agintaldia balorazioaz hitz egiteko eta herritarrekin partekatzeko herri-batzarra antolatu du. Maiatzaren 10ean, ostiralean, zehaztu dute hitzordua, eskolako jantokian, 18:30ean.

Ander Olaizolaren argazkiekin postalak egin dira

Ander Olaizolak herrian ataratako argazkiak baliatuz, postalak egin ditu Udalak. Dagoeneko salgai jarri dituzte udalletean, Zubimuxun eta estankotan. Mundu osoan egin dituen argazkiengatik ezagun da Olaizola, baina postaletan herrikoak bertakoak ageri dira.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH BILDU
Unai
MIRANDA
BERROETA

2. Alaitz Eskudero Bergara. 3. Imanol Legarreta Narbarte. 4. Maialen Apezetxea Etxeberria. 5. Igaratza Apezetxea Salaberria. 6. Iñaki Etxeberria Aranz. 7. Ana Uitzit Manterola.



Kontzertua 2008an Leitza.

Institutuetoako ikasleek kontzertuak eskainiko dituzte

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Leitza, Doneztebe, Lekaroz eta Donostiako Lau Haizetara institutuetoako ikasleek kontzertuak eskainiko dituzte datorren astean, ikasurtean zehar musika arloan ikasi eta landutakoa eskaintzeko asmotan.

Maiatzaren 7an, asteartean, Leitza Amazabal frontoian izanen da emanaldia; **hilaren 8an**, asteazkenean, Doneztebe Ezkurra frontoian; **hilaren 9an**, ortzegunean, Lekarozko institutuetoako kiroldegian eta **hilaren 10ean**, ortziralean, Donostiako Lau Haizetara ikastetxean. Emanaldi guztiak 17:00etan izanen dira.

Egitaraua

Kantutegiari dagokionez, euskal abestiak, rock estiloko abestiak, dantzak... denetarik izanen dute: *Agurra* (herrikoia), *Martxa baten lehen notak* (Mikel Laboa-Artze), *Loretzoxa* (Exkixu), *Video killed the radio star* (The Buggles), *Larrosen baltsa* (Patxi ta konpainia), *Habanera* (Xabier Lete), *Miña terra galega* (Sinestro Total), *Have you even seen the rain* (Credence), *Nothing else matters* (Metallica), *Neskatxo* (Txakun), *Caballo prieto azabache* (mexikar herrikoia) eta *Blitzkrieg bop* (The Ramones) joko dituzte.



Herritarrei bertaratzeko deia egin diete. ARTXIBOKOA

Festak antolatzenko bilera deitu dute maiatzaren 4rako

Jende eskasia tarteko kolokan dago arkume-jatea eta egin edo ez erabakiko dute

OHIANA KALPARSORO

Uztailaren 25etik 28ra ospatuko dituzte festak eta horiek aurrera eramateko antolatze-lanekin hasiak dira herritarrek dagoeneko. Apirilaren 11n, bildu ziren eta joan den urteetako egitarauak oinarri hartuta, ardura batzuk banatu zituzten. Bestalde, erabaki batzuk eztabaidatzeke utzi zituzten.

Haurren eguneko ekitaldi nagusiari dagokionez, hainbat proposamen jaso zituzten: animaliak, zirkoa, ur festa... Musikan Jazpana orkestrina eta Errebal izan ziren aipatu-

takoak. Azken hitza zehaztu gabe dagoenez, jai batzordekoek «hurrengo bilkurara joan edo batzordeko kideei jakinarazteko» deia luzatu nahi izan dute.

Hurrengo bilera maiatzaren 4an, larunbatean, izanen da eta bertan, besteak beste, arkume-jatea aurrera aterako den edo ez adostuko dute.

UDAL HAUTESKUNDEAK

ARANO - HERRI AIERRIZ

1. Joxan Muñoz Miner. 2. Xabier Cueto Martin. 3. Xabier Legarreta Etxarri. 4. Jon Mari Beasain Irazusta. 5. Kontxi Claver Oiarbide.



MAITANE GEREÑO

100 urte bete ditu Engraxi Marzolek

Otsaida etxean jaio zen 1919ko apirilaren 16an eta bost senidetatik hirugarrena da. Areson eman du bizitzaren zatirik handiena, baina azken 27 urteetan Tolosan bizi da. Bertan jaso zuen familiako bisita eta bazkari eder batekin ospatu zuten zenbaki borobila. Urte askoan Engraxi!



UTZITAKO ARGAZKIA

Baserri-auzoetako seinaleak herrituta

Herrigunetik kanpo dauden etxebizitzak modu egokian identifikatzeko Helpbidea proiektuan parte hartu du Udalak. Etxebizitza bakoitzari identifikatzaile bat jarri dio (zenbaki bat) eta seinalizazioan ere aldaketak egin ditu: auzoaren izena, etxebizitza eta bakoitzaren kodea ikus daiteke.

Konpost-fabrika egingo dute industrialdean

Nafarroako Hondakinen Kontsortzioak eta Udalak akordioa sinatu dute berriki, Eluseder industrialdean konpost-fabrika bat egiteko: Udalak 1.200 metroko partzela utziko dio Kontsortzioari 30 urtez eta ordainean 43.000 euro inguru jasoko ditu.

UDAL HAUTESKUNDEAK



ARESO ERAIKIZ
Jose
OTERMIN
ETXARRI

2. Beatriz Muro Martinez. 3. Zuriñe Goikoetxea Saizar. 4. Txomin Belaizaran Mariezkurrena. 5. Jabier Otermin Etxarri. 6. Mikel Arraigo Braña, 7. Jesus Artola Arraigo.

EN plus A1 ES 025

BEROPEL
egurrezko pelletas
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654

31770 LESAHA (Nafarroa) • Fax 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

Elizondoko zahar-etxeak boluntarioak behar ditu

Astegunetan edo asteburuetan arratsaldetan adinekoak paseatzeko behar dituzte

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Frantzisko Joakin Iriarte zahar-etxeak arratsaldetan adinekoak paseatzeko boluntarioak behar ditu. Astegunetan edo asteburuetan, arratsaldez ateratzeko izanzen litzateke eta laguntza oro eskertuko dutela jakinarazi dute.

Gutienez astean behin ordu-betez ateratzeko izan behar da eta bakoitzak duen presuntasunaren arabera antolatuko dute ordutegia. Interesa dutenek zahar-etxera bertaratzuz edo 948 58 05 92 telefonora deituz adieraz dezakete beraien borondatea.



UTZITAKO ARGAZKIA

BSE eguna Elizondoko Lanbide Eskolan

BSE eguna landu zen Elizondoko Lanbide Eskolan apirilaren 3an. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza departamentuaren eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren eskutik 80 ikasle eta irakasle inguru elkartu ziren berrikuntza, sormen eta ekintzaile jardunaldietako tailerretan.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EH-BILDU
Joseba
OTONDO
BIKONDOA

2. Juan Kruz Iriarte Bañez. 3. Marijo Garmendia Urtizbera. 4. Xabi Maia Etxeberria. 5. Oianko Garde Jaunsaras. 6. Xabi Torres Letona. 7. M^a Jesus Zubieta Azkona. 8. Iñaki Sanzberro Goñi. 9. Amaia Iturriria Barreneke. 10. Juana M^a Urrutia Azpiroz. 11. Gorka Urtaşun Saldias. 12. Joxepi Barreneke Lertxundi. 13. Mikel Ortega Arratza.



EZKERRA
Florentino
GOÑI
TELLETXEA

2. Iñigo Iturralde Elizetxe. 3. Elena Arretxea Mitxelena. 4. Kristobal Zelaieta Oharriz. 5. M^a Resurreccion Elizagoien Etxegarai. 6. Aitor Jaen Braña. 7. Nerea Frias Iturria. 8. Nestor Arturo Txarantxi Saavedra. 9. M^a Lourdes Oharriz Martikorena. 10. Belen Iturbide Lukas. 11. Unai Apeztegia Petrirena. 12. Alejandro Martin Ibarra. 13. M^a Isabel Mikelarena Domec.



GEROA BAI
Joseba
MORENO
BIDEGAIN

2. Ruben Ziganda Sanz. 3. Edurne Goñi Otxandorena. 4. Lander Santamaria Alcocer. 5. Izaskun Goñi Razkin. 6. Jabier Zabaleta Andresena. 7. Alicia Aleman Arrastio. 8. Mikel Garbalena Goñi. 9. M^a Jose Pagazaurtundua Idiart. 10. Pello Salaburu Etxeberria. 11. Maitena Urmeneta Otsoa-errarteko. 12. Jesus Gomez Garralda. 13. Virginia Aleman Arrastio.



NAVARRA SUMA
Isabel
OLABE
BALLARENA

2. Anastasio Nagore Garralda. 3. M^a Carmen Iribarren Iribarren. 4. Karnele Zabalza Benito. 5. Marco Molina Irazoki. 6. Jose Jabier Agirre Azkarraga. 7. Karnele Agerrea Iribarren. 8. Carlos Idoate Ezkieta. 9. Francisco Iribarren Arretxea. 10. Consolacion Agerrebere Zelaieta. 11. Jose M^a Garmendia Arizmendi. 12. Isabel Bidart Santxotena. 13. Begoña Sanzberro Iturriria.



Diputazio etorbidea, 7
Tfnoa: 948581805



GOI MAILAKO ZIKLOAK
Administrazio eta Finantzak
Turismoko Ostatuak Kudeaketa

ERDI MAILAKO ZIKLOAK
Administrazio Kudeaketa
Erizaintzako Zainketa Lagungarriak
Mekanizazioa

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA
Metalezko Elementuen Fabrikazioa
Bulegoko Informatika

LANBIDE HEZIKETA BEREZIA

Elizondoko dendak hurbilago jarriko ditu Bertan-Busak

Asteartetan Baztangoiza aldera eta asteazkenetan Basaburua eta Erberea aldera joanen da autobusa

TTIPI-TTAPA

Bertan-Busaren aurkezpena egin dute apirilaren 16an Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Ekimen hau Baztango Bertan Elkartek, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, bultzatu du, «gure negozioak baztandarren eskura jartzeko helburuarekin», Javier Garde lehendakariak eta Angel Arraztoa idazkariak agerraldian adierazi dutenez.

Honekin lortu nahi dute publiko ezberdinari, baina jende helduei bereziki, «herrietara mugikortasuna ahalbidetzea, ibilgailu pribatuen erabilera murriztea eta jasangarritasun konpromisoari eta ingurunearekiko dugun errespetuari fidelak izaten jarraitzea». Gainera, ekonomia zirkularra lagun du nahi dute, bertan erosteari aukera emanaz.

Bi ibilbide astero

Zerbitzu honek bi ibilbide egingen ditu astero: asteartetan Baztangoiza aldera joanen da eta asteazkenetan Basaburua eta Erberea aldera. Ibilbidea



Elizondon hasi eta akituko da. Ibilbide bakoitzak bi bidaia egingen ditu, lehendabizikoa goizean (jendea herrietatik Elizondora hurbiltzeko) eta bertzea eguerdian (Elizondotik herrietara eramateko). Bidaia bakoitzaren prezioa euro batekoa izanen da. Autobusa geldituko den tokiak kartel batekin egonen dira seinaleztatuak eta bertan autobusaren ordutegiak ere egonen dira jarriak. Bertan-Bus zerbitzua maiatzaren 7an eta 8an jarriko da martxan. Sei hilabete inguru iraunen duen proba pilotuaren ondotik, zerbitzuaren erabilearen inguruko ikerketa bat egingen da eta hor ikusiko da honekin aitzinera egingen den edo ez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erratzuko pala txapelketa

Apirilaren 13an, Etxelebert pilotalekuan jokatu zuten Erratzuko Pala Txapelketako finala. Julen Iriarte eta Mikel Cenozek irabazi zuten Unai Santxotena eta Patxi Irigoienen aurka, 28-40 emaitza lortuz. Gisa honetara, partida ikusgarriak utzi dituen txapelketa borobildu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xauliren aldeko azoka Baztan Ikastolan

Apirilaren 15ean azoka solidarioa egin zuten Baztan Ikastolako 6. mailako ikasleek. Jolastokian bildu ziren eta eskumuturrekoak, bigarren eskuko jostailuak, liburuak eta pintxoak saldu zituzten. Lortutako dirua Xauli elkartera bideratuko dute.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
TALLER DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Transgenikoen inguruko solasaldiak interesa piztu du

Joserra Olarieta adituak eskaini zuen apirilaren 12an: «Transgenikoei buruz herritarrek erabaki behar dute»

TTIPI-TTAPA

Joserra Olarieta Alberdik, Lleidako unibertsitateko irakasleak, transgenikoei buruzko solasaldi interesgarria eman zuen apirilaren 12an Arizkunenean. Hazitik Hozie elkar-teak antolatutako jende dezentet bildu zen eta gogo biziz aditu zituzten azalpenak. Olarietak *¿Transgénicos. De verdad son necesarios y seguros?* liburua argitaratua du eta gaian aditua da.

Transgeniko labore nagusiak artoa, soja, kotoia, koltza eta luzerna dira eta munduko transgenikoen hiru laurdenak Estatu Batuetan, Argentinan eta Brasilen ekoizten dira. Modu berean, Europako Batasuneko herrialde gehienetan transgenikoen ekoizpena debekatua dagoela erran zuen, nahiz Espainiako estatuan MON810 arto transgenikoa baimendua dagoen. Nafarroan adibidez, 8.300 hektarea daude eta estatuan ekoizten den artoaren herena transgenikoa da. Europa gehienetan transgenikoak ekoiztea debekatua egonagatik, animalien pentsutarako eta herritarren elikadurarako inportatzen da. Animalien produktuetan etiketatzea ez da beharrezkoa eta baratzeak %0,9tik gorakoa bada, bai.

Olarietaren erranetan transgenikoen hiru helburu dituzte: gosearen egiazko arrazoiak ezkatzea, negozio teknologiko berria sortzea eta hazien merkatua pribatizatzea eta kontrolatzea. Ildo horretan transgenikoen gosearekin akitu ez dutela erran zuen. Transgenikoen gibelean lehengai



Arizkunenean jende aunitz bildu zen.

merkeekin pentsu merkea produzitu nahi duten pentsu fabrikatzaileak daudela erran zuen. Izan ere, estatu mailan abere hazkuntza produktibista, industrial eta intentsiboa nagusi baita. Modu berean transgenikoen ondorio sozialak aipatu zituen eta jendeendako toxikoak izaten ahal direla ere bai. Azkenik, transgenikoei buruz herritarrek erabaki behar dutela erran zuen, ez dela zientzialari eta politikarien eskuetan bakarrik uzten ahal.

Testuinguru horretan, aipagarria da Udalak transgenikorik gabeko udalerrria izateko erabakia hartu zuela 2018ko maiatzaren 24ko bilkuran.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pragako Enpresa Simulatuen Azokan

Elizondoko Lanbide Eskolako Administrazioa eta Finantzetako Goi Heziketa zikloa ikasten ari diren eskualdeko 9 ikasle eta bi irakasle Pragan izan ziren martxoaren 18tik 22ra bitarteko astean, Enpresa simulatuen ferian parte hartuz. Malkorraren laguntza izan dute.

Lizaso eta Zubeldiarekin bertso-afaria egingen dute Gartzainen maiatzaren 18an

TTIPI-TTAPA

Herriko gazteek antolatuta, asteburu kulturala izanen dute maiatzaren Gartzainen. Hilaren 18an, larunbatean, bertso-afaria izanen dute, 21:00 aldera, herriko elkartean (60 lagun baino gehiago izanez gero elkartean goitiko solairuan egingen lukete). Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldiaren doinu eta hitzen bueltan bilduko dira bertsozaleak. Txartelak maiatzaren 12ra arte erosi ahal izanen dira, 30 eurotan, Frantsene ostatuan edo Saioari deituz (620 58 33 48).



Lizaso eta Zubeldia ariko dira.

Maiatzaren 17an, ortziralean, berriz, mus-txapelketa izanen dute 19:30ean. Parte hartzeko Andoniri (620 58 33 48) edo Saioari (608 64 24 50) deituz eman daiteke izena.

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Udalarekin eta Bertan elkartearekin elkarlanean, esperientzia jarri dute martxan Elizondon eta Erratzun. JUAN MARI ONDIKOL

Ontziak birziklatzeko sistema berria Erratzu eta Elizondon

Nafarroako Gobernua, Udala eta Bertan elkartearen ekimena da, ontziak baliabide baliotsuak direla erakusten duena

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoaren bitartez, Udala eta Bertan elkartearekin elkarlanean, Gordailu, Itzulketa eta Itzulerako Sistema (GIIS) esperientzia erakusgarria jarri du martxan Elizondo eta Erratzun.

Esperientzia 4 hilabetetakoia izanen da eta hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Legean aurreikusitako jardueren parte da. Ekimen honekin, baztandarrei erakutsi nahi zaie ontziak baliabide baliotsuak direla eta horiek berreskuratzea garrantzitsua dela. Ontziak (3 litro baino gutxiagoko plastikozko botilak eta edarien latak) gordetzearekin, herritarrek bertanticket-a jasotzen dute eta, Bertan Baztan osatzen duten denda eta enpresetan deskontuak eskuratu ahal izanen dituzte. Ekonomia zirkularren bertz adibide bat da, jatorrian hondakinak behar bezala kudeatzeak, tokiko merkataritza eta ekonomia bultzatu ahal izanen



Umeak ontziak berreskuratzen.

baititu. Horrela, ingurumena zaintzeko eta tokiko merkataritza laguntzeko sentsibilizazio-helburu bikoitza lortuko da, ekonomia zirkularren ereduari begira.

HIRU LITRO BAINO GUTIAGOKO ONTZIAK BILDUKO DITUZTE

ONTZIEN TRUKE BERTANTICKET-A JASOKO DUTE ERABILTZAILEEK

Prozesuaren garapena

Sistema horretarako jarritako bi makinaren bidez kudeatzen da (bat Elizondon eta bertzea Erratzun). Ontzien material, forma eta tamaina identifikatzen dute, sentsore optiko bati esker. Ontzia onartu ondoren, konpaktatu eta gorde egiten du. Makina bakoitzak 1.400 ontzi gordetzeko gaitasuna du, tamainaren arabera. Makina hauek Nafarroako Gobernuak Urbasa-Andia Parke Naturelean eta Allozko urtegiaren zituen antzeko probetan erabili ziren. Uztailetik iraileira bitartean, 1.200 kilo ontzi (102.800 ontzi) bildu eta 12.700 ticket trukatu ziren. Sistema hori Finlandian eta Alemanian erabiltzen dutenaren antzekoa da.

Nafarroako Hondakin 2017-2027 Planaren baitan sartzen da GIIS esperientziak egitea, hondakinak kudeatzeko modu osagarri gisa. Zehazki, planak, 2018rako, GIIS erregulatzeko eta ezartzeko ekimenen inplikazioak aztertzea aurreikusten du eta Nafarroako esperientzien bideragarritasuna aztertzea.

Sistema hau ontzi eta hondakin ontzien legean bildurik zegoen, ontzi hondakinak kudeatzeko tresna gisa. Espainiako Gobernuak urtarilean azaldu zuenez, urte honetan azterlan bat egingen da Espainian Gordailu, Itzulketa eta Itzulerako Sistema ezartzeko aukerak eta bideragarritasuna ebaluatzeko.

Izpegiko II. rally igoera maiatzaren 5ean egingen dute

Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatuta, maiatzaren 5ean, heldu den igandean, egingen dute Izpegiko II. rally igoera. 09:00etan itxiko dute errepidea eta 09:30ean abiatuko da lehendabiziko autoa. Arratsaldean, 16:00etan, banatuko dituzte sariak.

Arizkun Rock girotuko duten taldeak ezagutu dira


Arizkongo bestetako egitarauaren barne egin ohi duten Arizkun Rock jaialdia ekainaren 21ean, 23:00etan hasita, izanen da. Nafarroa 1512, En Tol Sarmiento eta Tirri&Tery taldeek joko dute. Ez da sarrearik ordainduko eta kanpin-dendendako tokia izanen da.

Estresa eta antsietatea gainditzeko tailerra

Estresa eta antsietatea gainditzeko tailerra egingen dute maiatzaren 8 eta 15ean Elizondoko Osasun Etxean, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko 948 581832 telefonora deitu edo Osasun Etxeko harrerara joan behar da (kopurua bete arte).

Institutuetako ikasleen kontzertua Lekarozen

Leitza, Doneztebe, Donostia-ko Lau Haizetara eta Lekarozko institutuetako ikasleek kontzertua eskainiko dute maiatzaren 9an, ortzegunean 17:00etan Lekarozko institutuko kiroldegian. Leitza, Donezteben eta Donostian ere izanen dituzte kontzertuak.



Kirol eta Gazteria Institutuko eta udal ordezkariak, hitzarmena sinatzen.

Mugairiko frontoia berritzeko 17.000 euroko aurrekontua

Hitzarmena sinatu dute berriki Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak eta Baztango Udalak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak eta Baztango Udalak hitzarmena sinatu dute Mugairiko frontoian berritze lanak egiteko. Kanpoko zein barneko paretak presiopeko urarekin garbituko dituzte, dauden zuloak eta pitzadurak berdindu eta luzituko dituzte, frontisa, ezkerreko horma eta errebotea zein txapak eta zenbakiak margotuko dituzte, eta gauza bera egingen da kanpoko aldearekin. Horretarako, 17.182 euroko aurrekontua izanen dute.

Hitzarmenaren klausuletan jasotakoaren arabera, lan horien helburua da instalazioaren narriadurak zuzentzea, kirola praktikatzeko erabiltzen segitu ahal izateko. Lan horiek instalazioaren egitura orokorrean eraginik ez badute ere, baldintzak hobetuko dituzte.

Erabilera anitzeko instalazioa
Estalitako pilotaleku hau, dituen ezaugarriak medio, udalerrian tresna-jolasa egiteko aukera ematen duen guttietako bat da. Instalazio hau du egun Mugairiko herriak

kirola praktikatzeko eta, bertan, antolatzen dira kirol-txapelketak, pilota-modalitateak, eskubaloia, saskibaloia eta areto-futbola.

Jarduera kulturalak, sozialak eta bertze hainbat antolatze ere erabiltzen da, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrek instalazio horretan egiten dituzte soin-hezkuntzako klaseak.

Jolaserako eta aisirako funtzioak ere betetzen ditu, bereziki 3 urtetik beheitikoentzat eta 3 eta 11 urte arteko ikasleentzat, jolaserako eta bizikidetzarako aukera emanez.

Pobeñarekin elkartrukea egitea proposatu dute

Burdina eta euskara oinarri hartuta, herriko 18 eta 20 urte arteko gazteak Bizkaira joanen lirateke lehenik

TTIPI-TTAPA

Burdina dela medio, mendeetako harremana izan du Urdazubik Bizkaiko Muskiz eta Pobeña herriein. Bizkaian ateratzen zen minerala itsasoz ekartzen zuten Lapurdira eta Urdazuri ibaian goiti eta idiek bultzatutako gurdiekin ekartzen zuten Salvatore monastegira, burdinoletan erabiltzeko. Azken urteetan, Burdinaren Egunean irudikatu dute antzinako bidaia hori.

Orain, Muskiz eta Pobeñaiko alkateek herrien arteko harreman horretan sakondu nahi

izan dute eta Urdazubiko gazteekin elkartruke jardunaldiak egin nahi dituzte. 18 eta 20 urte arteko gazteei zuzendutako elkartrukea litzateke, euskara eta burdina oinarri duena. Lehenik, Urdazubiko 5-6 gaztek Pobeña bisitatzea proposatu dute eta gero, Burdinaren Egunaren kariatara, bizkaitarrak herrira etortzea. Udalak gazteak animatu nahi ditu elkartrukean parte hartzera. Elkartrukeko gastuak (ostatu-hartzea, otorduak, garraioak...) Petronor enpresak ordainduko ditu.

UDAL HAUTESKUNDEAK



AZKAR
Iñaki
ARIZTIA
URRIZA



GEROA BAI
Iñigo
IMAZ
MARTINEZ

2. Cristobal Alzuiet Martin. 3. Silvia Olaizola Bidart. 4. Jose Luis Gomez Sierra. 5. Santiago Villares Otegi. 6. Txomin Iribarren Larralde. 7. Juan Maria Mihura Galainena.

2. Mikaela Anastasia Bidart Organbide. 3. Daniel Elizalde KARRIKA. 4. Miren Edurne Ariztia Plaza. 5. Ana Esther Menta Soubelet. 6. Pedro Etxeberria Irigoien. 7. Pedro Maria Etxart Maia.

**OSPAKIZUNETARAKO
SALA
ALOKATZEN DUGU**

Gure lokala nahi duzun ospakizuna nahi duzun moduan antolatzeko aloka dezakezu: ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, familia bazkaria...

- 170 lagunentzako jangela
- Sukalde profesionala edo catering enprekin harremanetan jarriko dizugu
- Lo egiteko tokiak 15 pertsonendako

IKABURUA

T. (0034) 948 59 92 22 | (00 34) 690 755 875 | Urdazubi (lezeen ondoan)

www.ikaburua.com

Herri Aitadarako prest dira herritarrak

48 lagun animatu dira maiatzaren 18an, heldu den larunbatean, Ainhoan eginen den hitzordurako

MARIFA ETA KORO

Bilkura pare bat egin ondotik, herritarrek dena prest dute maiatzaren 18an, heldu den larunbatean, Ainhoan eginen diren Herri Aitada jokoetarako.

Bertze urte batez, Sara, Urdazubi, Etxalar, Bera, Zugarramurdi eta Ainhoako herritarrak lehiatuko dira.

Parte-hartzaileen artean, Zugarramurdi da herri ttikiena. Joko aunitz izaki, jende dezente behar zuten eta azkenean 48 lagun animatu dira parte hartzera. Horien artean



bi beteranoak izanen dira: Pedro Mari eta Lorentxo hain zuzen ere. Horiek mahai-inguruan bildu eta musean ariko dira.

'Oro ez da urre' erakusketa izan dute lezean

Aste Santuko ortziralean, apirilaren 19an, arratsaldean, Agurtzane Anduetza eta Iñaki Bastarrikaren eskutik, 'Oro ez da urre. Aurrez aurre margotzen' erakusketaz gozatzeko aukera izan zuten herriko Sorginen Lezean. Ikusleek gustura ikusi zuten.



Bastarrika eta Anduetza.



UTZITAKO ARGAZKIA

Korrika kulturala arrakastatsua

Apirilaren 13an Korrika kulturalerako hitzorduak izan zituzten herrian. Goizean bote-luzeko partidak izan zituzten eta ondotik 60 lagun elkartu ziren bazkarian. Arratsaldeko kontzertuetan giro izugarri polita izan zen, Muskai, Satelitik, Mugaldekoak Band eta Toomatxa taldeekin.



Armua jatetxeak ia 37 urte egin ditu zabalik. MARIFA ETA KORO

Armua jatetxeak betirako hetsi ditu atea

MARIFA ETA KORO

Laster 37 urte zabalik beteko lituzkeen Armua jatetxeak betirako hetsi ditu atea. Lerro hauen bidez, herritarrek bertako nagusiei, Juaniri eta Eme-teriori, eskerrak eman nahi izan dizkiete, «urte hauetan guztietan eskaini dituzten jaki gozoengatik, adierazi duten

esker onarengatik eta izan duten pazientziarengatik». Bide batez, aipatzekoa da, inguru horretan, Alkerdi auzoan, dagoen bertze jatetxea, Burkaitzea, irekita mantenduko dela. Astegunez gosariak eta bazkariak emanen dituzte eta aste hondarretan gauze ere irekiko dute.



Pintura-lanak kanpokoak eta barnekoak
Zolak, zatiketak eta beste lan txikiak jartzea
Denden diseinua eta dekorazioa

TINTALANAK
RAMUNTZO ERRANDONEA

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

 Zugarramurdi
 (+33) 06 03 347 076
 tintalanak@gmail.com
 www.tintalanak.com

UDAL HAUTESKUNDEAK

ZUGARRAMURDI - AKELARRE

1. Evaristo Mentaberri Miura.
2. Juan Miguel Ariztegi Etxenike.
3. Manuel Soto Rodriguez.
4. Elena Apeztegia Goienetxe.
5. Francisco Antoni Mascaró.

TTPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook

www.facebook.com/ttppi.ttapa

Sekulako arrakasta izan du hirugarren Bildotsaren Egunak

Usaiako ekitaldiez gainerat, berrikuntzak preziatu dituzte feriarra hurbildu diren 3.000 pertsonek

PIERRE BASTRES

Battit Endara, Silvia Aguerre eta Benat Darrigues dira Komertsanten Elkarte buruak, Bildotsaren Eguna antolatzen duen batasuna. Nola iragan den aurtengo galdegini, huna zer den Battiten ihardespina: «Ongi alabaina, eta alde guzietan. Gan den urtean bazkaria eta aktibitate guziak pilota plazan egina genituen. Aurten, ordea, bazkaltzeko tokia Larrekoren aintzinean ezarri dugu, eta aktibitateak pilota plazan beti. Aise hobeki izan da, leku gehiago izan dute jendeek. 500 bazkaltiar bildu ditugu, txartel guziak gan dira. Oro har 3.000 jende hurbildu zauzkigu, feria ederra bilakatu da Bildotsaren Eguna».

Mota ainizetako jarduera edo aktibitatez baliatzen ahal ziren ikusliarak apirilaren 14an, goizetik arrats: Xilindron hoberenaren lehiaketa, ongi haztea zer den jakiteko mintzaldia, koka hoberenaren lehiaketa, dantza nor-ederragoka Zirikolatz elkartearekin, laborantzarako tresnen erakustaldia, arto irinaren egitea Akerreta eiheran, artzain xakur lanaren aurkezpena Nicolas Dokhelarekin, eta bazkariaren ondotik Zarena Zarelako taldearen azken dantza sorkuntza, aizkolariaren erakustaldiaren baino lehen.

Karrika nagusian ere, beren mozkinak erakutsi eta saldu ahal izan dituzte 30 komertziantek.



Irudi ikusgarriak utzi zituen III. Bildotsaren Egunak. DANIEL HEMBERT

LK goiburupean, maiatzaren 12an ospatuko dute aurten Herri Urrats

PIERRE BASTRES

LK lelopean ospatuko dute heldu den maiatzaren 12an aintziraren inguruan Herri

Urrats besta. Gunez gune egitarau zabala prestatu dute aurten ere Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko bestan.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

BERA (administrarritza) 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Iruñ	DANTXARINEA 31712 Urdax	LUZAIDE 31660 Luzaide
--	------------------------------	-----------------------------------	---------------------------------

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
Abenduaren 25 eta urtarilaren 15* izan ezik

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com



Iñaki Iriartek egindako oroitarria Suharriagan dago. TEHESA

'1813-1814 Ahantzi Ezina' oroitarria inauguratu dute

Suharriagan paratu dute eta lau mintzairerako plaka bat egin dute bisitariek ikas dezaten zer zen iragan 1813an

PIERRE BASTRES

1813-1814 Ahantzi Ezina ize-neko oroitarria estreinatu dute Suharriagan, duela 200 urte Napoleonen tropek egindako makurrak eta hemengo herri-tarrek pairatu zituzten sufrikario izugarriak gogoan.

Aipatu elkarteak liburu bat argitaratu zuen 2013an, orduko gertakariak gogorat ekartzeko, baina horiez gainerat, oroitarri bat egin nahi izan du eta horixe inauguratu zuten Idazleen Biltzarren egunean, apirilaren 22an. Iñaki Iriarte herritar gazteak egina da zizelkaritza eta ondoan lau min-

tzairatan plaka bat paratu dute, bisitariei azalpenak emanaz.

Inaugurazio egunean, Lapurdi 1609ko Mixel Mendiburuk egin zuen sar hitza eta «oroitarriak gure hurbileko historia oroitarazteko» balio zuela aipatu zuen, «miseria gorria jasana, emigrazioa izugarria, eta guztiengatik Eskual Herria bizi dela oraino eta gogo handiz jo nahi duela». Battit Laborde auzapezak, berriz, ekitaldiak «ororen buru, gure herriaren historia hobeki ezagutzeko balio» duela adierazi zuen. Kanta, bertso eta dantza artean finitu zuten ekitaldia.

Eskola publikoak antolatuta zikiro jatea larunbatean

Eskola publikoko haurren burasok zikiro jatea antolatu dute larunbat honetan, maiatzak 4, Lur Berri gelan. 12:30ean aperitifa eskainiko du eta 14:00etan hasiko dira bazkalzen. Bazkalondoa Joxe Angel Baztango musikariak alaituko du.

Atsulai eta Erlauntza abesbatzak

Maiatzaren 10ean Atsulai abesbatzak kantaldia eskainiko du 21:30ean elizan (sartzea hamar euro). Eta hilaren 16an, Erlauntza abesbatza ariko da, 21:00etan elizan (sartzea bost euro). Bikasuetan 15 urtetik beheitikoek sartzea urrik izanen dute.



125 bat egileren lanak ezagutzeko aukera izan zen kiroldegian. TEHESA

Jende ainitz bildu da 36. Idazleen Biltzarrean

TTIPI-TTAPA

Euskarazko literatura helduentzat lelopean, kiroldegian 125 bat egileren lanak, 27 argitaletxe eta 11 elkarte bildu ziren apirilaren 22an eta 23an iragan zen 36. Idazleen Biltzarrean.

Egitarauaren barne, hainbat ekitaldi eta aurkezpen izan zituzten. Apirilaren 22ko goizean, Aintzane Lasarte eta Iñaki Martiarenaren *Nekatorrena* proiektua eta Euskaltzaindiaren azken argitalpenak izan ziren nagusi. Arratsaldean, berriz, Juan Carlos Etxegoien *Xamarren Etxera bidean*, Kepa Altonagaren *Duvoisin kapi-*

tainaren malura eta Asisko Urmenetaren *Xahoren biografikoa* lanak ezagutu ahal izan ziren. Severine Dabadie eta Itxaro Bordak *Poema bat da herri hau* lana aurkeztu zuten eta ondotik Xabier Erkizia, Lucas Rullo eta Arantxa Iturbek *Afoniak* lana izan zuten hizpide.

Bien bitartean, eguerdian Ikuska sariak banatu zituzten. Aurten Juan Mari Txoperena eta Rafael Zubiriarentzat izan dira.

Apirilaren 23a, berriz, profesionalei bideratutako eguna izan zuten.



GANEX

Baionako xingarraren ferian sarituak

34 urdaiazpiko aurkeztu ziren apirilaren 18tik 21era egin zen Baionako urdaiazpikoen ferian eta bi sari eskuratu zituzten herritarrek: Nicolas Etxeberriak lehen prima lortu zuen 17 kilo eta erdiko xingar azpiarekin eta hirugarren saria Fernand Agirrerentzat izan zen.



Seigarren aldiz segidan irabazle izan da Oier Ariznabarreta. MANTTALE



Ainhoa Sanzek marka berria ezarri du, bi ordutik jaustita. MANTTALE

Ariznabarreta eta Sanz garaile XV. Berako Mendi Maratoi Erdian

Durangoko gizasemeak seigarren aldiz segidan irabazi du eta Urretxuko emakumeak errekor berri bat ezarri du, lehen aldiz bi orduko langatik beheiti eginez (1h:56.56)

TTIPI-TTAPA BERA

Oier Ariznabarreta (Durango), ordu bat, 39 minutu eta 38 segundoko denborarekin, eta Ainhoa Sanz (Urretxu), ordu bat, 56 minutu eta 56 segundoko markarekin, izan ziren apirilaren 14an Beran jokatu den Mendi Maratoi Erdiko hamabosgarren edizioaren irabazleak.

Ariznabarretak ez zuen arazorik izan seigarren aldiz segidan gizonezkoen kategorian gailentzeko, Walter Bezerra eta Xabier Zarranzaren aitzinetik, 21 kilometro luze eta 2.700 metroko desnibela duen ibilbidean.

Ariznabarreta lehenengo metrotik paratu zen lasterketaren buru, eta Larunen, bi-dearen punturik altuenean, 3 minutu baino gehiagoko tartea zuen.

Durangoko korrikalariak ezin izan zuen 2014an berak jarri zuen errekorra hobetu, ordu bat, 37 minutu eta 30 segundoko denborarekin. Ibardingo tarteko helmuga, 150 euroko



Manttalek ere ordezkaritza zabala izan zuen lasterketan.

sariarekin, ere berak irabazi du.

Eskualdeko korrikalarien artean, Berako Joseba Larralde izan zen bizkorrena, zazpigarren postuan (1:46:53) Emakumeen artean, Lesakan bizi den Ana Reina izan zen helmugaratzen lehena (2:26:18).

Emakumezkoen kategorian Ainhoa Sanzek irabazi zuen lehen aldiz, eta gainera errekorra hobetuz. Goierri Garaia taldeko korrikalaria ibilbidea 2 ordu baino guttiagotan egi-

tea lortu duen lehenengo emakumea izan da, Berako Mendi Maratoi Erdia ospatu den 15 urte hauetan, eta Laura Solak 2014an egindako errekorra (2:00:10) puskatu du. Oihana Kortazar, bigarren sailkatua ere, 2 ordutatik jaisetik hurbil egon zen, 2 ordu eta 45 segundoko denborarekin. Podioa Maria Zorrozak osatu zuen (2:03:20).

Beratik Ibardinerako gazte trailean, 14 eta 17 urteen arteko gazteen lasterketan, Peio Iturria, Oihan Pikabea eta

Jokin Irazokik irabazi zuten, eta emakumeen kategorian Ainhoa Etxegarai gailendu zen Lorea Zubietaren aitzinetik.

Taldeka Goierri Garaia taldeak irabazi zuen, Idiazabalen aitzinetik.

Guztira 543 korrikalarik parte hartu zuten frogan, eta 532k bukatzea lortu zuten. Lasterketa ikusten egon zen jendar-te anitzak eguraldi fresko batean, baina eguzki zein euririk gabe, eman zen lasterketaz gozatu ahal izan zuen. Ez zen nabarmendu beharreko gertakari larrik egon.

Izabako Txapatera landetxean asteburu baten zozketako boleto saritua 98 zenbakiduna izan zen.

200 haur

Mendi Maratoi Erdiaren bezperan, larunbatean Beran egon ziren haurren lasterketen lehenengo edizioa arrakasta handi bat izan zen. 220 haur inguruk hartu zuten parte, mutil zein neska, Matzada futbol zelai inguruan adinka banatuta egon ziren frogetan.

Lasterketa bukatzean gaztetxoek korrikalariaren poltsa bat eta txokolatadaz gozatu ahal izan zuten.

Horren ondotik, Berako kultur etxean Iker Karreraren solasaldi interesgarria izan zen, Unai Ugartemendia kazetariak moderatuta.



Errekako eskubaloia taldeak zaleekin bat egin zuen Donezteben jokatuako lauko final historikoan. UTZITAKOIA

28 urte eta gero liga irabazi du Errekako eskubaloia taldeak

Donezteben jokatuako lauko finaleko biak irabazita, denboraldiko partida guztiak irabazi ditu

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE
Denboraldi historikoa itxi du Doneztebeko Erreka eskuba-

loi taldeak apirilaren 13-14ko asteburuan herriko kiroldegian jokatuako lauko finalarekin.



AITOR AROTZENA

Beti Gazte txapeldun lauko txapelketan

Nafarroako lauko sokatira txapelketako lehen finalak jokatu zituzten apirilaren 13an Lesakan. Gizonezkoek 320 kilotan eta emakumezkoek 255 kilotan jokatu zituzten txapelak eta bietan Beti Gaztek irabazi zuen txapela. Hurrengo saioa Donezteben izanen da maiatzaren 11n (300 eta 235 kilotan).

Xabier Ibargarai txapeldunorde izan da binakakoan

Buruz burukoan txapeldun izan ondotik, binakako Munduko pala txapelketako finalera ere ailegatu da Erratzuko pilotaria. Fusto argentinarrarekin batera galdu egin zuen apirilaren 13an Mungian Gaubeka eta Ibai Perezen kontra (5-10, 4-10, 10-7 eta 5-10).

VI. Goizutrail lasterketa maiatzaren 11n

Goizutrail lasterketaren seigarren edizioa izanen da maiatzaren 11n, larunbatean, Goizuetan. Aurten hiru aukera eskaini dituzte: ibilbide motza (hamar kilometrokoa) eta luzea (hogeita bost kilometrokoa) ez ezik, bikoteka egiteko aukera eskainiko dute. Azken hori aukeratzen duten bikoteei dagokionez, partaide batek 10 kilometro egingen ditu laster; eta bertzeak 15 kilometro. Izen-ematea zabalik da dagoeneko eta www.herrikrossa.eus atariaren bitartez egin daiteke.

Lehenbiziko faseko eta txapeldunen faseko partida guztiak irabazita lortua zuen lauko finala etxean jokatzeko eskubidea eta etxean ere ez zuen hutsik egin. Larunbat arratsaldean 25-22 irabaziz finalaurrekoan Cantolaguari eta final estuan 32-31 Loyolari. Eskubaloiairen besta handia bizitu zuten Donezteben, kiroldegia bi eguneko marea urdin bihurtua eta 28 urteren ondotik, berriz ere liga irabaztea lortu du Errekak.



XAGU-LESAKA

Igantzi txapeldun Herri Kirol Jokoetan

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako Finala jokatu zen apirilaren 14an Altsasan. Eskualdeko taldeei dagokienez, txapel bakarra Igantzik lortu zuen (argazkian), infantil mailako proba konbinatuan. Kadete mailako sokatiran txapeldunorde izan zen Basarnegi (Berroeta, Baztan eta Iberoko kirolariak).

HITZALDIAK

LEITZA

'Elikadura osasuntsuan heztea gure ardura'

LeitzEkok antolatua.
Erleta eskolako jantokian,
maiatzaren 2an, 17:00etan.

Baserritarren lana hizpide

Atekabeltzen, maiatzaren
15ean, 11:30ean.

ARANTZA

'Cannabisak zure garunari eragiten dio' tailerra

15-20 urte bitarteko gazteentzat.
Baskulan, maiatzaren 3an,
18:00etan. Izen-ematea: 634 22
36 59.

BERA

Gure Txokoa elkartearen Ohiko Batzarra

Lamotenean, maiatzaren 4an,
19:30ean.

ARANO

Herriko pestak hizpide

Maisuenean, maiatzaren 4an.

LESAKA

'Sare-on: arriskuak, aukerak eta prebentzioa'

Gurasoentzat zein gaztetxoekin esku hartzen dutenentzat.
Erabilera anitzeko aretoan,
maiatzaren 6an eta 13an,
17:00etatik 18:30era. Izen-
ematea: 634 22 36 59.

ELIZONDO

Estresa gainditzeko ikastaroa

Osasun etxean, maiatzaren 8an
eta 15ean, 10:00etatik
13:00etara.

SENPERE

Bertsolamintza jardunaldiak

Ametz Artzallusekin eta Miren Artetxerekin.
Larralde Bertsularien Lagunak
elkartean, maiatzaren 16an.



UTZITAKOIA

SENPERE Herri Urrats

Musika, jolasak, ikuskizunak... ikastolen aldeko bestan.
Maiatzaren 12an.

IKUSKIZUNAK

BERA

'Musua' ikuskizuna

Labiaga Ikastolak antolatua.
Sarrera: 8 euro (0-2 urte 2 euro).
Altzateko frontoian, maiatzaren
4an, 17:00etan.

DBHko ikasleen antzerki-emanaldia

Maiatzaren 16an eta 17an.

Uxanekoen antzerki-emanaldia

Maiatzaren 17an.

Lehen Hezkuntzako ikasleen antzerki-emanaldia

Maiatzaren 21ean eta 23an.

LESAKA

'Drag-e uraren bila' antzezlanak

Lau urtetik aitzinerakoentzat.
Maiatzaren 5ean.

'La paz y otras lunas'

Harriondoan, maiatzaren 18an.

DONEZTEBE

'Hartz eta otsoekin lotan'

Zineman, maiatzaren 10ean,
19:30ean.

TAILERRAK

IRURITA

Txorimalo tailerra

Ines Gereka eta Amaia Zinkunegiren eskutik.
Plazan, maiatzaren 18an,
10:00etatik 13:00etara.

LEITZA

Bideo-edizio tailerra

Atekabeltzen, maiatzaren 8an,
18:30ean.

Interpretazio-tailerra

Atekabeltzen, maiatzaren 9an,
18:30ean.

AZOKA

DONEZTEBE

Udaberriko feria

Maiatzaren 10ean.

LEHIAKETAK

BERA

Baztan-Bidasoko Bertsopaper Lehiaketa

Maiatzaren 17a arte.

Bestetako egitaraurako azal-lehiaketa

Maiatzaren 31 arte.

DONEZTEBE

II. Argazki Rallya

Maiatzaren 11n, 10:30ean
hasita.

KIROLA

ETXALAR

Etxalarko mendi itzulia

Maiatzaren 4an, 07:00etan
abiatuta.

ERRATZU

II. Izegiko rally igoera

Maiatzaren 5ean.

GOIZUETA

Goizutrail

Maiatzaren 11n.

DONEZTEBE

Sokatira jardunaldia

Ezkurra pilotalekuan,
maiatzaren 11n, 17:00etan.

BERROETA

Mendi Maratoi Erdia

07:00etan oinezkoen mendi
marxa.
Maiatzaren 19an, 09:00etan
abiatuta.

KONTZERTUA

LEITZAN

Lekaroz, Doneztebe, Leitza eta Donostiako ikasleak

Amazabal kiroldegian,
maiatzaren 7an, 17:00etan
hasita.



ARTXIBOKOA

GOIZUETA Txinoko festak

Bertso-saioa, mus txapelketa, musika...
Maiatzaren 3an eta 4an.

DONEZTEBE

Lekaroz, Doneztebe, Leitza eta Donostiako ikasleak

Frontoian, maiatzaren 8an, 17:00etan.

Mendi Abesbatza eta Gaztelu Taldearen kontzertua

Elizan, maiatzaren 4an, 20:00etan.

LEKAROZ

Lekaroz, Doneztebe, Leitza eta Donostiako ikasleak

Kiroldegian, maiatzaren 9an, 17:00etan.

SALDIAS

Malerreka Kantuz

Maiatzaren 4an, 12:00etan.

LEITZA

'Parti Cut Lloi' abesbatza

Elizan, maiatzaren 10ean, 20:00etan.

SARA

Atsulai abesbatza

Elizan, maiatzaren 10ean, 21:30etan.

Erlauntza abesbatza

Elizan, maiatzaren 16an, 21:00etan.

LESAKA

Zeharkako txirula kontzertua

Komentuko elizan, maiatzaren 24an, 18:00etan.

OSPAKIZUNAK

SARA

Zikiro-jatea

Lur Berri gelan, maiatzaren 4an, 14:30etan.

SENPERE

Herri Urrats

Maiatzaren 12an, egun osoz.

EZKURRA

Malerreka Eguna

Maiatzaren 18an.

GARTZAIN

Asteburu kulturala

Mus txapelketa eta bertso-afaria. Elkarteetan, maiatzaren 18an eta 19an.

Nire aukera

«Elkartek herritarren arteko hartu-emanak sendotzea eragin du»

ANDONI GALARREGI GARTZAIN

«Gartzainen bizi den 20 urteko mutil gaztea» da Andoni Galarregi. Ez da geldirik egoteko sortua. Astegunez tailer batean egiten du lan eta lanetik kanpoko denbora librean «afizioez gozatzeko» baliatzen du: «motorra eta soinua duten tresna eta ibilgailu guztiak gustuko ditut». Ofizio eta afizio artean, badu bertze egiteko bat: «herrian urte guztian antolatzen diren besta eta otorduak antolatzeko urtero bi damunagusi izaten gara eta aurtan Saioa eta biok gabiltza horretan». Azken aldian, maiatzean egin ohi den «urteroko bertso-afariaren bueltan, ekitaldiz hornitutako asteburu kulturala» antolatzeko lanean aritu dira. Ekitaldi bakarra asteburu



batera zabaltzearen helburua, «herritar guztiek parte hartzeko moduko ekintzak izatea» da: «momentuz mus-txapelketa, pintxo-jatea eta bertso-afaria lotu ditugu» baina haurrendako zerbait antolatzeko ideia ere badarabilte. Izan ere, haien ustez «guztiok elkartzen garenean herri-giro politagoa sortzen da». Batasun

horretan lagungarri izan zaie joan den urtean auzolanean sortu zuten elkartea: «adina kontuan hartu gabe, herritarrak elkartzea eragin du». Giro ederrean biltzeko tokiaren beharra bazegoela uste du gartzaindar gazteak. Orain, biltokia ez da aitzakia, eta «herriak izan zezakeen hutsune bakarra betetzea lortu dugu». Gartzaindarra da izatez, eta gartzaindarra bihotzez. Hitz ederrak ditu ahoan herriaz solastatzean, «herri tikietakoko biztanleen hartu-emana» da gehien gustatzen zaiona, baita kokapenak duen inguru ederra ere. Txokoren bat aukeratzea zail egiten zaion arren, bat bereizi beharko balu «Urbaloko tranpako txabola» nabarmenduko luke. Dena dela, inguru guztian barna ibiltzeko eragozpenik ez du, kotxea hartuta orduak motz izaten baititu. Egun-pasa bat bere esku utziz gero, argi du zer eginen lukeen: «rallyren batean hasi eta ondokoekin otordu eder bat eginez akitzen diren egun horietako bat» aukeratuko luke, horiek «borobilak» baitira beretako. Ariaren ariaz aspertzeko betarik emanen ez dion zaletasunari eutsiz eta «gustuko lana eginez» bitiztea bertzerik ez du amets. Eskatzaile trebeenek bezala gutti eskatuta, zorionsu izateko behar duena jasoko baitu horrela.

MERKATU TTIKIA



MOLDATU HOME
INMOBILIARIA
HOME STAGING

T. 661875785
www.moldatuhome.com
info@moldatuhome.com

LESAKA

Laugarren etxebizitza argitsua salgai igogailuarekin.

3 logela, sukalde, jantoki-egongela handia, bainua, trastelekua eta bi balkoi dauzka.

Gas Natural berogailua.

Konponketa batzuk behar ditu. 128.000 euro.



ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Pisua errentan emateko. Beheko sua, sukalde elektrikoa, bajera eta ganbara ditu. ☎943 63 34 30.

BERA. Legia karrikan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, trastelekua eta berogailua. ☎678 36 33 98 / 678 30 52 50.

ELIZONDO. 65 m²ko pisua errentan emateko. Elizondoko lanbide eskolaren ondoan. ☎678 54 27 73.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Eiltzetako plazan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎636 84 75 10.

LANA

ESKARIAK

Adinekoak edo haurrak zaindu edota etxeko lanak egiteko esperientziadun emakumea lan bila. Orduka edo interna moduan. ☎631 12 52 73.

Gizonezkoa edozein lanetan aritzeko prest. Nekazaritzan, abeltzaintzan eta mendiko lanetan esperientziaduna. ☎631 82 61 47.

Adinekoak edo haurrak zaintzen interna moduan esperientziadun emakumeak lana behar du. ☎643 54 96 22.

Emakume arduratsua lan bila. Interna edo orduka adinekoak edo haurrak zaindu eta garbiketara lanak



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

eginen lituzke. Erreferentzia oso onak. ☎602 18 24 68.

Arotz lanen Erdi Mailako Zikloa egina duen neska bat horrekin zerikusia duen lan bila. Beste arloren batean aritzeko ere prest: lantegi batean, garbiketan, dendaren batean... Horietan esperientziaduna. Neska langilea eta ikasteko gogo handiarekin, beti jarrera baikorrarekin. Deitu edo Whatsapez: ☎646 50 18 07.

Ingelesa eta frantsesa dakien gizonetako bat lan bila. Edozein lan egiteko prest: nekazaritza, ostalaritza, klaseak emateko... ☎657 63 89 34.

Gizonezkoa edozein lanetan aritzeko prest. ☎644 94 30 03.

Gizonezkoa edozein lanetan aritzeko prest. ☎644 54 22 13.

Haurrak zaintzeko edo eskolara eramateko prest dagoen neska arduratsua lan bila. Ordu bat edo bi orduz lan egiteko prest Etxalar, Bera edo Lesaka aldean. ☎636 18 15 46.

ESKAINITZAK

BERA. Ostatu batean asteburu gaue-tarako barran lan egiten esperientzia duen pertsona bat behar dute. ☎663 70 86 15.

LEITZALDEA. Lantegi batean tornularia behar dute. Bi urte esperientzia eskatuko da eta programatzeko ezagutza. ☎678 71 58 34.

BERA. Jatetxe batean sukaldari laguntzailea behar dute egun osoan aritzeko. Esperientziaduna. Bidali curriculumak: icelayetam@gmail.com.

BERA. Esperientzia duen estetizista behar dute. ☎948 63 07 60.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,20
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,30/6,90
- 8-10 kilokoak: 5,20/5,70

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 62 €
Zerri gizona 1,330 €
Zerramak 0,650€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (apirilaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)

ZUGARRAMURDI. Alzatenea jate-txean sukaldari laguntzailea behar dute maiatzetik abendura bitarte eguerdiko zerbitzuan lan egiteko. ☎948 59 91 87.

IRURITA. Haurrak zaindu eta etxea garbitzeko pertsona arduratsua baten bila ari gara. Astelehenetik ostiralera, goizez bakarrik. ☎607 23 92 02.

Supermerkatuan, egunero lan egiteko frantsesa dakien kajera bat behar da. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

ZERBITZUAK

PSIKOANALISTAK

ROSA BELZUNEGI

PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272 011 (IRUÑA)

☎ 948 580 975

Jaime Urrutia, 42-2.D **ELIZONDO**

ANIMALIAK

OPARITZEKO



BERA. Txakurkumeak oparitzeko. Artzai zakurra eta Border Collie arraza nahasketa dute. ☎677 62 34 54/ 699 13 75 43.

DENETARIK

SALEROSKETAK

Haragia gordetzeko kamara salgai, desmuntagarria. Berri-berria, bozpasei hilabete baino ez dituen. Barrenetik 5 m². ☎661 34 56 37

SANTESTEBAN TAILERRAK



RENAULT KADJAR ZEN TCE 140 CV - 20.100 €
Nab. - Rad. Kam. - LED faroak - Sus. fin. lotuta



DACIA DUSTER COMFORT TCE 115 CV
14.700 euro - Sustapen finantzarioei lotuta

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

ARANTZAKO UDALA

Arantzako hirigintzako araudi orokorraren aldaketa. Hasierako onespena.

Arantzako Udalak, 2019ko martxoaren 21ean egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Arantzako hirigintzako araudi orokorraren aldaketaren espediente, hirigintza araudi orokorraren 13, 25, 26 eta 29. artikulua eta ez urbanizagarria den lurren hirigintzako araudia- ren 18. artikulua. Arantzako Udalak sustatua.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3 artikulua jarraikiz, espediente jendaurrean egonen da Udalaren Idazkaritzan hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzinera, azter dadin eta bidezko jotzen diren alegazioak aurkez daitezten. Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Arantzan,
2019ko apirilaren 23an
Alkatea, Juan Miguel
Almandoz Mitxelena

ARANTZAKO UDALA

Arantzako eraikuntzen ordenantza orokorraren aldaketa. Hasierako onespena.

Arantzako Udalak, 2019ko martxoaren 21ean egindako osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Arantzako eraikuntzen ordenantza orokorraren aldaketa onestea, konkretuki 18., 19., 27., 52., 54., 55. eta 56. artikulua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, ordenantza jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunear, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espediente aztertu eta erreklamazioak, ke- xak edo oharrak aurkez ditzaten. Jendaurreko epea inork alegazio- rik aurkeztu gabe iragaten bada, aipatu espediente behin-betiko onetsirik geldituko da, eta haren testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Arantzan,
2019ko apirilaren 23an
Alkatea, Juan Miguel
Almandoz Mitxelena

KONTATU KONTUAK



Pintxo lehiaketaren arrimuan haurrak jolasean Sunbilla. Apirilaren 18tik 20ra bitarte pintxo astea egin zuten Sunbilla, eta horren barne, kanpinean haurren jokoak eta txokolata antolatuta zituzten. Argazkian ageri den bezala, neska-mutiko kuadrilla ederra elkartu zen arratsalde gozatzera, eta gainera, opari eta guzti itzuli ziren etxera.



Liburuaren Eguna Anizen. Iaz hasitakoari segida emanez, bigarren aldiz Liburuaren Eguna ospatu dute aurtien Anizen. Berez, eguna apirilaren 23an bada ere, aniztarrek 24an egin zuten eta aski ongi atera zen. Lurdesek ipuinak kontatu zituzten Batzarregian bildutakoei eta ondotik, hurrek etxetik eramandako liburuak trukatu zituzten. Maiatzaren 7a izanen dute utzitako liburuak itzultzeko hondar eguna.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Merkatu Ttikiko iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak/> Informazio gehiago: info@ttipi.eus edo 948 635458.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttppi.ttapa

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun, ekitaldi edo ateraldiren baten berririk eta argazkia TTIPI-TTAPA aldizkarian erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidal ezaiguzu eta kontaguztu zer den argazkian ageri dena!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira.

Ttppi-Ttapaaren egoitzan

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAren bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

Edozein zalantza izanez gero, galdetu lasai! Deitu (948 63 54 58) edo idatzi (info@ttipi.eus edo 744 48 43 61) eta zure zalantzak argitzen lagunduko dizugu.

HERIOTZAK

- **Denis Pose**, Sarakoa, martxoaren 30ean, 82 urte zituela.
- **François Landa**, Sarakoa, apirilaren 7an, 84 urte zituela.
- **Agustin Urroz Arrastio**, Berakoa, apirilaren 10ean, 79 urte zituela.
- **Tomás Gortari Salaburu**, Erratzukoa, apirilaren 10ean, 54 urte zituela.
- **Mikaela Bertiz Elizondo**, Berakoa, apirilaren 10ean, 84 urte zituela.
- **Gregori Etxegia Berrueta**, Goizuetakoa, apirilaren 12an, 90 urte zituela.
- **Juan Francisco Dorregarai Mitxelena**, Iruritikoa, apirilaren 13an, 89 urte zituela.
- **Eduardo Eugi Senper**, Igantzikoa, apirilaren 14an, 85 urte zituela.
- **Alvaro Otero Campos**, Lesakakoa, apirilaren 15ean, 79 urte zituela.
- **Balaxi Andresena Zubigarai**, Legasakoa, apirilaren 15ean, 29 urte zituela.
- **Mª Jesus Irigoien San Sebastian**, Berakoa, apirilaren 17an, 70 urte zituela.
- **Jose Zelaieta Saldias**, Oizkoa, apirilaren 19an, 89 urte zituela.
- **Esteban Telletxea Arregi**, Legasakoa, apirilaren 19an, 93 urte zituela.
- **Mª Teresa Larralde Cerezales**, Leitzakoa, apirilaren 20an, 66 urte zituela.
- **Jose M. Apezetxea Iribarren**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 23an, 62 urte zituela.
- **Joxepi Erkizia Urzelaieta**, Berakoa, apirilaren 24an, 100 urte zituela.
- **Fidel Agesta Ibarra**, Doneztebekoa, apirilaren 25ean.

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDAN
 AGU, A TU LADO

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
 Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

OROIGARRIA



Tomas GORTARI SALABURU
 Erratzun, 2019ko apirilaren 10ean

Mahai baten bueltan elkartuko gara.

ETXELEBERT ELKARTEKO LAGUNAK

OROIGARRIA

Eduardo EUGI SENPER
 Apirilaren 14an hil zen Igantzin, 85 urte zituela

Behi eta ardi zaintza lanetan pasatzen zenun eguna, naturarekin giro onean gozatuz lasaitasuna. Senar goxoa aita xamurra zintzoa eta biguna, bihotz-bihotzez eskertzen dugu jasotako maitasuna.

ZURE FAMILIA



Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten guztiei, eskerrik asko.



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
 BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokia
 MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
 365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
 tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA

ETXEETAN ZERBITZUAK

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

www.tanatoriosirache.es

URTEBETETZEAK




Josu, Miren eta **Aritz**: zorionak hirukote eta muxu haundi bana Saldiasako familiaren partetik.




Urdazubiko **Pablo Olaizola Espelosini**, aunitz urtez aitaxi, apirilaren 18ko partez. Muxuak zure biloba Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



Etahun Olaetxeak maiatzaren 2an 9 urte egingen ditu. Zorionak amatxi eta Berako eta Lesakako familiaren partetik.



Eratsungo **Aimar Bakirou Moaresek** 9 urte bete ditu apirilaren 28an. Zorionak aitona eta Anaren partetik.



Goizuetako **Iargi Indakoetxea Mendizuri** gure ebeko printzesak 5 urte beteko ditu apirilaren 30ean. Zorionak Ireber, aita, ama, amona Pakita; Hernani eta Usurbileko familiaren partetik.



Berako **Ainhoa Larretxea Agirrek** urteak beteko ditu maiatzaren 13an. Ongi ospatu eta muxu bat ebekoen partetik.



Zorionak Berako **Joseba Petrirenari**, maiatzaren 2an 36 urte beteko dituelako. Zure familiaren partetik ongi pasa eguna! Agur!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak, TTIPI-TTAPAREN bitartez! Bi bide dituzu:

Internetez: <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta Ttipi-Ttapa aldizkarian.

Bulegoan: Etor zaitez Ttipi-Ttaporen bulegora: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Prezioa: Argazki soila: 5 €; bikoitza 10 €

Erakutsi eta probestu aukerak!

2019-2021

DESKONTUAK LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Uharte Gotzaina, 1- behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p>%3 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>		
<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Gotzaina, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTIMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p>%10 DESKONTUA koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p>%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p>Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>
<p>%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p>%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74</p>	<p>%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20</p>	<p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Uharte Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>

PLAZAN BAZAN



ITZALA


Zein da patinatzaile xeibre honen itzal zuzena?



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, URTEAK hitza osatzen duten hizkiak (U, R, T, E, A eta K) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eu/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak



ESAERA ZAHARRA

Esaldi hauek bat etor litezke marrazkiak adierazten duenarekin, baina denak ez dira esaera zaharrak. Zehazki esanda, erdiak asmatuak dira. Bereiziko al dituzu?

1

Martxoko eguzkia, txarren txarrena

2

Apirilean ezin jakin noiz izango den ateri

3

Maitasuna eta gorrotoa bezala, eguzkia eta euria, elkarren kontrario

5

Eguzkia eta euri, martxoko eguraldi

4

Apirila euritsu, urtea kakatsu

6

Euriak ez daki eguzkia ahaltzuagoa dela

ONGI

GAIZKI

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ZIRRIBORROA

Zein marrazki osatuko zenuke zirriborro honetatik abiatuta?



Ttipi Txartela

rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktak bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

732

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

- Baztan Abentura Park - 2 sarrera
Xabier Angulo Pinedo | BERA
- Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Joakin Lizaso Bakaikoa | IRUÑEA
- Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Maria Teresa Osakar Agerrebere | ZIGA
- Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Juana Igoa Arranbide | NARBARTE
- Buatxabal - Kamiseta bat
Milagros Barandiaran Ballarena | ELIZONDO
- La Rhune - 2 sarrera
Juan Jesus Pikabea Maia | DONEZTEBE
- Wow Park - 2 sarrera
Izaskun Urrutia Apezetxea | LEITZA
- Elkar / Katxiporreta - Liburu bat
Maite Igartzabal Etxabide | LESAKA
- Elkar / Katxiporreta - Liburu bat
Irene Iribarren Garbalena | LEKAROZ

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

2 sarrera



ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA



Wowpark
DE 3 A 99 ANOS
Votre Parc Aventure

2 sarrera
WOW PARK
<http://wowpark.fr>

LIBURUAK



Agur txupeteari
Bainatzera

ibaizabal
www.ibaizabal.eus

LA GUNTZAI LEAK



<http://wowpark.fr>



www.mendukilo.com